



**Nagusien iparra,  
langileon indarra!**



**Toribio Etxebarria, 1**

**EUKI**  
servicios inmobiliarios

*20 urtetik gorako esperientzia eskaintzen dizuegu balorazioetan eta eraikinetako salerosketa, alokairu eta traspasorako bitartekotzan*



bitatu gure eskaintzak web-ean  
[www.euki.com](http://www.euki.com)

**GALDETU: 943 20 03 58 / [fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)**



# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**f** Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, N° 12 - 1° - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Gerontologiko beharginak

**BANAKETA-ARDURA:**  
Mohammed El Ghabali

**TIRADA:** 8.200 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA)**

# Eskutitzak

– Etorri santaeskean ...eta kitto!-rekin –

Azken urteotako ohiturari jarraituz aurten ere Santa Ageda bezperan, otsailak 4 astelehena, ...eta kitto! Euskara Elkartea santa eskean irteteko gonbidapena luzatu nahi die eibartarrei. Arratsaldeko 17:15ean elkartuko gara ...eta kitto!-n bertan (Urkizu 11, solairuartea) eta 17:30ean abia-

tuko gara. Ibilbidea hauxe izango da: Urkizu, Bittor Sarasketa, Estaziño, Ibarkurutze, Arragueta eta Urkizu. Amaitzerakoan, 18:30 inguruan, mokadutxo bat hartuko dugu Euskara Elkartea egoitzan (txokolate beroa eta txorizoa).

...eta kitto! Euskara Elkartea

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MATXINSALTOKARI.** - Matxinsalto. Gaztelera 'saltamontes'. "Eibarren esan dogu beti: matxinsaltokarixa; beste leku batzuetan: matxinsaltua".

### astean esanak

"Gustuak beste zentzumen batzuk baino hobeto eusten dio urteetan aurrera joateari, baina berak ere hartzaileak galtzen ditu bereziki zapore gazi eta gozoen arloan. Ikusmena edo entzumena galtzea oso gogorra da, askok horiek lehenetsiko lituzkete beste zentzumenekiko, baina gustua galtzea drama hutsa da: jaten dugun guztiak botaka egitera bultzatuko gaitu, apetitoa galduko dugu eta desnutriziora heltzeko arriskua dago. Jatera eseri aurretik, pentsatu gustua dela digestioaren lehen urratsa"

(GURUTZ LINAZASORO, SENDAGILEA)

"Orain arte erabiltzen genituen dogma eta teoria guztiak pikutara joan dira azken aldian. Baziren idatzi gabeko arau batzuk, kate generalisten artean onartutakoak, biolentzia, sexua, lengoia eta pertsonaiei buruzkoak. Zer zioten dogma horiek? Urrezko-araua emakumeak erakartzea zen. Eta jarraitzen genuen teoria honakoa: audientzia tarta modukoa da. Bizkotxo emakumezkoak dira; nata, gizonezkoak; gindak, gazteak eta umeak; eta nagusiak, kandelak. Bizkotxoarekin bakarrik egin daiteke pastela, baina inoiz ez bera gabe. Eta gero kapak gehitzen genizkion. Gaur egun ez dute indarrik halako teoriak"

(RAMON CAMPOS, PRODUKTOREA)

"Jendeak Paleolitoaz duen irudia da emakumea arrastaka eramaten duen basatiarena, eta berdintasunera ailegatu garela orain. Prozesua gertatu denaren kontrara ulertzen dute askok. Amazoniako ehiztari-biltzaileekin lan egin dut, eta hor ez dago botere harremanik. Berdintasunezko gizarte bat izateko aukera izan bada inoiz, ehiztari-biltzailearena litzateke. Prehistoriatik hona, komunitateen hasieran denek talde identitate bat zuten, identitate komunitario bat, baina horri gailentzen joan zitaion identitate geroz eta indibidualizatuagoa. Bi identitate mota sortu ziren, kontrajarriak"

(ALMUDENA HERNANDO, GENEROAN ADITUA)

## Eguaztenera arte jasoko dabe Sahararako janarixa

Urtarrilaren 30era arte bilduko dittue "Sahararen aldeko XV. Euskal Karabana: Piztu Itxaropena" ekimenerako janarixa. Eskatzen dittuen produktuak aurreko urtiotako berberak dira: arroza, pasta, azukria, lekaleak, atuna eta sardiñak olixotan eta konpresak. Lagundu nahi dabenak Villalba supermerkatuan, Isasi okindegian, Eroskin (Urkizu, Urki eta Ipuruako dendetan), BM-n eta El Corte Inglesian kanpaiñaren harira preparau dittuen puntuetan laga ahal dittu produktuak. Batutako guztia Sahara bialduko dabe, han bizi diran errefuxiatueri laguntzeko. Oinguan be Eibar-Sahara alkartekuak

dihardue bilketia antolatzen. Aurreko astian German Amuategi alkarteko kidiak Miguel de los Toyos alkatiarekin batera Villalba supermerkatuan egindako agerraldixan herriterreri laguntzeko dei egin zetsen. Euren berbetan, "hamen gitxi emonda be, han asko egitten dabe hamendik aillegatzen jakuenari esker. Izan be, oindiok laguntasun premiña haundixa dake, kanpamenduetako bizitza gogorrari aurre egin ahal izateko. Bertara jua ezker, egunero jaten daben arren sarritan otordu guztiak ez dittuela egitten ikusi leike. Horregaittik da horren garrantzitsua gure laguntasuna".



## Bilbon, Getxon eta Hondarribian saldu dira Tripontziak-en zenbaki saridunak

Astelehen goizian egin eben Tripontziaren zozketia, Beasainen, notario aurrian eta zenbaki sariduna 22.873 izan da. Getxon banatu dan zenbaki horren Gipuzkoako serieak jaso dau saririk haundiña (60.000 euro). Zenbaki horren gaiñerako serieen jabiak 2.000 euro jasoko dittue. Bigarren zenbaki sariduna be Bizkaian, Bilbon saldu da: bigarren sarixa 21.013 zenbakixari egokitu

jako eta serie bakoitxak 1.500 euro jasoko dittu. Eta hirugarren zenbaki sariduna 16.692 da eta Hondarribian saldu dabe. 1.000 euro jasoko dittu zenbaki horren serie bakoitxak. Gure Esku Dago-k otsailaren 21ian banatuko dittu sarixak. Bestalde, aurtengo Tripontzian bildutako dirua "Elkarrekin-Together" film dokumentala finantzatzera bideratuko dabe.

## Hitzaldixa antolatu dabe Untzagan, lapurretak saihesteko aholkuak emoteko

Lapurreta eta iruzurrak zelan saihestu azaltzeko hitzaldixa antolatu dabe Untzagako jubilaue etxeuak eguaztenerako, 19:15ian. Ertzaintzatik juango dira gaixaren inguruan berba egittera eta saiuk ordu eta erdi inguruko iraupena izango dau. Sarrera nahi daben guztiendako zabalik egongo da.



## PP-ko ordezkariaren kejak

Francisco Javier Nuñez Eibarko alderdi popularreko ordezkariak salatu dabenez, gure herriko auzuetan daguzen parkietako asko ez dagoz ganoraz zainduta. Mantenimendu falta eta konpondu biharreko beste kontu batzuk erakusten daben argazkixekin lagundu dittu bere berbak eta gauza bera egin dau Ubitxa eta Paziano Arosako akzesibilidadia kritikatzera. Bere berbetan, "sozialistak lau urte euki dittue akzesibilidadia hobetzeko, baiña oindiok ez dabe ezer egin". Horrekin batera, geroz eta lapurreta gehixago gertatzen ari dirala eta, udaltzaiñeri eta erztzaiñeri euren biharra egitteko baliabidiak gehitxia be eskatu dau.



lazko ekañian hasi ziran jendia hartzen Mutrikuko Arrietakua jauregixan

## Eskualdeko eskintza turistikua Fitur Azokara eruan dabe

Aurten be Debabarreneko eskualdia Fitur Nazioarteko Turismo Azokan parte hartzen dihardu. Eguaztenian hasi zan turismo arloko ekimena domekara arte garatuko da eta, beste batzuetan bezala, gure eskualdeko eskintza turistikua Euskadiko standean egongo da eskuragarri, Euskal Kostaldiari eskindutako txokoan. Barrikuntza gisa, Mutrikuko Arrietakua Jauregixa ezagutzeko bisita gidatuen aurkezpena egingo dabe aurten. XVIII. mende hasieran eraiki eben jauregixak Interes Kultureleko Ondare izendapena dauka eta Gipuzkoan ondo-

en gordetzen dan ondare-baliabidietako bat da. 1995az geroztik monumentu multzo izendapena dakan Mutrikuko Hirigune Historikuan dagan jauregixa iazko ekañian zabaldu zan jendaurrera eta orduz geroztik ixa 800 lagunek bisitatu dabe. Arrietakua Jauregixa ezagutzeko bisita gidatuen erreserba Geoparkearen webguniaren bittartez egin leike, [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) helbidian. Horrekin batera, azokia aprobe txau dabe UNESCOren Munduko Geoparkeen geoturismo esperientzien aldizkari barrixa eza-gutzer a emoteko.

## autuan

### GIZARTE INBERSIÑUAN ZERRENDABURU

Españian 20.000 biztanletik gora dittuen 404 udalen zerrendan, gizarte arloko inbersiñueri begira Eibarko Udala laugarrena da zerrendan. Rankiña osatzeko, Udal aurrekontuan gizarte-zerbitzu eta sustapen sozialera zenbat diru bideratzen daben begiratzen dabe eta Eibarren 225'4 euro bideratzen dira holakuetara biztanleko eta urteko.

### LANERAKO TREBAKUNTZA

Udalak aditzera emon dabenez, salmenta-teknikari laguntzaille eta loradendetako saltzaille izateko programan izena emoteko epia otsaillaren 1era arte egongo da zabalik. Eskaeriak egitteko eta informaziñua jasotzeko udalaren web orrira sartu leike ([www.eibar.eus/eu/tramiteak](http://www.eibar.eus/eu/tramiteak))

asteko  
**759**  
datua

*odol donaziño egin ziran iaz horretarako antolatutako 22 saiuetan, hau da, 34 lagun batzbesteko egunero. Gaur egun Eibarrek 435 odol-emotaille dittu, urtian 1'77 bidar odola emoten dabenak. Odol-emotailien Alkartia kopuru hori 600era handitzen saiatuko da.*

## JOSE MARI ARRIOLA IDIAKEZ

2018-XII-20



## SABINA ARANGUREN BEITIA

2019-I-16



FAMILIAREN IZENEAN, **ESKERRIK BEROENA**  
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.

**Euren aldeko IRTEERA MEZA ospatuko da urtarrilaren 27an (domeka),  
eguerdiko 12.00etan, San Andres parrokiari.**

## Minigarbiguniek birziklapenak hobera egittia nahi dau Mankomunidiak

Debabarreneko Mankomunidiak kalia ipiñi dittuan minigarbigunieri esker gaikako materixalen bilketiak hobera egittia espero dabe. Halan azaldu eben aurreko barixakuan ekimenaren barri emoteko egindako prentsaurrekuan: *“Minigarbigunien sare barrixak gaikako bilketia gerturatu nahi detse herritarreri, holan birziklapenian aurrera egitten segitzeko”*.

Guztira, 12 minigarbigune jarriko dittue Mankomunidadeko zortzi udalerrixetan, horretako hiru Eibarren (Ego Gain kalia, Tiburtzio Anituan eta Urkizun) eta, bertan, gaur egunian garbigunietara eruan bihar diran materixaletako batzuk bilduko dittue. Edukiontzi berezi horretan zer bota leikian bertan adierazitta dago: telefono mugikorrak, CD eta DVDiak, bonbillak, aerosolak, baterixa txikixak, pilak, telefono-kargagailuak, erradiografixak, kable elektrikuak, txatarra bolumen txixixa, etxetresna elek-



Mankomunidadeko presidentia eta beste herrixetako ordezkariak barixakuko agerraldixan.

triko txikixak (plantxak, txigorgailuak etab.), ordenagailu eramangarrixak, bideo-kontsolak, bideo-jokuak, 10 litrotik beherako pintura-potoak eta inprimagailu-kartutxuak biltzeko balixo dabe. Edozelan be, herritarreri informaziñua helarazteko asmuarekin, etxietara 30.000 esku-orri banatu dittue. Mankomunidadeko presidentiak holako azpiegituren onurak nabar-

mendu zittuan: *“Sareak gaikako bilketia gerturatuko dau eta herritarreri parte-hartzeko erretzasunak emongo detse. Holan, horreri esker, birziklapen kontuetan aurrera egitten segitzeko aukeria eukiko dogu”*. Esandakuaren arabera, ildo beretik jarraituko dabe etorkizunian be, *“bainā, edozelan be, bilketa-ehunekuak haunditzeko danon konpromisua bihar da”*.



## Elkar Fundaziñua omenduko dabe Armerixa Eskolan

Armerixa Eskolaren *“Ondo egindako lana”* egitasmuaren 13. saiuan, Elkar Fundaziñua omendu eta errekonoziduko dabe otsaillaren 11n, 12:30xetan hasiko daben ekitaldixan. Asmo horrekin egingo daben solasaldixan Joxe Mari Sors (Elkar), Jon Jaka (Elkar), Markel Olano (Gipuzkoako Diputatu Nagusixa) eta Joan Mari Torrealdai euskal idazle eta kazetarixa izango dira parte hartzen. Armerixatik azaldu dabenez, *“Elkar Fundaziñuak euskeria eta euskal kulturaren garapena kultur industriaren egituratzetik bideratzia izan dau helburu, liburu eta musikaren ekoizpena, banaketa eta sal-*

*menta biltzen dittuan egitura integrala osatuta. Izaera sozialeko enpresa taldia da. Egitura osua Fundaziñuan bilduta dago eta, baliabidiak euskal kulturgintzarenak izatiaz gain, emaitza atzera be euskal kulturaren berrinbertitzeko bide emoten dau horrek. Bere eredu propio eta soziala, bere azken urtietan lortutako emaitzak ezagutzeko, euskeria eta euskal kulturaren erronka eta ametsen inguruko gogoeta egitteko eta, gure aldetik, euskalgintzaren aldetik, bertako pertsonen konpromisua eta profesionaltasuna aitortu eta eskertzeko aukeria izango dogu”*.

## EH Bilduren batzar irekixa eguaztenian

Eguaztenian, 19:00etan, batzar irekixa egingo dabe EH Bildukuak Bilgunian (Bista Eder, 2). Billeran landuko dittuen gaixak bi honetxek dira: legegintzaldixaren inguruko baloraziñua eta alkategai hautagaitzaren berrestea. Izan be, Eibarko EH Bildu udal taldiak euren alkategaixa izango dana proposatzeko prozesua abiatu dau eta domekara arte egongo da zabalik hautagaixak aurkezteko epia. Horretarako zein bestelako proposamenak egitteko izena emotera animau nahi dabe jendia (<https://elkarrekin.ehbildu.eus> helbidian). Bestalde, jendiari gogorazi nahi detse martitzenero egitten dittuela billera irekixak Bilgunian, 17:30xetan.

## Etengabeko Arreta Guniaren inguruko eztabaida

EH Bilduk oin dala egun batzuk ohar baten bittartez ohartarazi ebanez, *"Toribio Etxebarriako ambulaxorikoko Etengabeko Arreta Guniā (EAG) ixteko arriskua erreala da"*. Osakidetzak guardia horrek pertsonalez hornitzeko zailtasunak dittuala diño Bilduk eta, ondorioz, arreta hori ospitale barrixan bakarrik emon-go dala pentsatzen dabe. *"Osakidetza beste lantokixetan postua daken medikuak konbentzitzen ari da Toribio Etxebarriako EAG-eko guardia betetzeko. Zelan? Guardia bakotxeko 700 euroko soldata eskinduta"*. Holakuak entzunda, Miguel de los Toyos alkatiak, ordea, ukatu egin dau Bilduk esandakua: *"EAG zerbitzua mantentzeko eskaeria egin detsat behin eta barriz Osakidetzari, eta holan izango dala ziurtatu deskue"*. Gaiñera, ospitale barriko



eta ambulaxorikoko EAG zerbitzua bateragarriak dirala erizten detsa alkatiak: *"Ez dauka hori holan izango ez danik adierazten deskun datu objektiborik"*.



## Suhiltzaillien zerbitzua hobetzeko moziñua aurkeztu dabe

Gipuzkoako suhiltzaillien zerbitzua indartu eta lanpostuak sortzeko moziñua aurkeztu dau EH Bilduk. Diñuenez, *"Eibarko Arrate suhiltzaille etxiak eta Gipuzkoako beste guztiak suhiltzaille falta nabarixia dake. Gaiñera, lan poltsak agortuta dagoz"*. Gauzak holan, egoeriak gipuzkoarron segurtasunian izan leikian eragiñaz ohartarazi dabe. Egoeria hobetzeko asmuarekin presentau daben moziñuak jasotzen dabenez, *"Eibarko Udalak eskatzen detsa, Gipuzkoako Foru Aldundiari Gipuzkoa 20-30 planaren garapenerako bidian, 2019xan 48 suhiltzaille lanpostu barri sortzia. Holan parke-etxe guztietan gitxienez 5 suhiltzaille txandak bermatu ahal izateko, baita Eibarko Arrateko suhiltzaille etxian be"*. Diputaziñoko suhiltzaille zerbitzuan 204 funtzionari-xo dagoz eta plantilla horrekin osatzen dira gaur egungo 8 parke-etxi-etako eguneroko txandak.

## Greba feministaren harira asanblada irekixa deittu dabe bixarko

Eibarko M8 Plataformak deittuta, bixar goizian asanblada irekixa egingo dabe Arrate Kultur Elkartean, 11:00etatik aurrera. Asanbladan Martxuaren 8rako deittu daben greba feminista izango dabe hizpide. Plataformatik azaldu dabenez, *"aurten, bestiak beste, data hori Eibarko androk egitten dittugun zaintza lanak (bai enplegu moduan egitten dittugunak, baita be gure egunerokotasunian musutruk egitten dittugunak) mahaigaiñeratzeko erabilli nahi dogu. Izan be, gizarte feminista bat sortzeko bidian biharrezkua da holako biharrik ikusaraztia eta bizigarrixa dan bizitza bat eraikitzeko orduan daken balixua aitortzia. Horrekin batera, ezinbestekua da zaintza lanen arduren berantolaketa erreal bat egittia eta danok dittugun zaintza premiñiak asetzeko gauza diran sariak sortzia. Hori guztia eta askoz gehixago aldarrikatu nahi dogu hurrengo martxuaren 8xan, eta horretan haste-ko herriko zaintzaren inguruko errealidade ezberdiñak jasotzia erabagi dogu"*. Horretarako galdetegi labur bat prepa-rau dabe eta jendiari hori betetzia eskatu nahi detse.



# Negu grisari, jantzi biziak

**A**rkaitz, Argia eta Iñaki hirukiek urteak beteko dituzte asteburuan eta Rose Nanleh Lawrehk, bere amak, ospakizun berezia eskaini nahi die. Rose Ghanatik etorri zen orain dela hamar urte eta seme-alaba euskaldunak ditu. Modadiseinuaren maitale hau bihotzari jarraituz iritsi zen Euskal Herrira eta bost hizkuntza menderatzen ditu, baita euskera ere. *“Seme-alabei etxeko-lanekin laguntzen saiatzen naiz eta eurekin asko ikasten dut”.*

## Volta ibaiaren bokalean

Ada hirian jaio zen Rose, Volta ibaia itsasoratzen den tokian. *“Naturaz inguratuta bizi gara toki ederrean, estuarioan irla politak daude eta, ondorioz, turista asko etortzen da”.* Paradise hotelak, *“han dagoen onenak”*, Ghanako politikariak eta abeslari famatuak jasotzen dituela dio Rosek. Turismoaz gain, gatza da Adak duen beste industria garrantzitsuena. *“Modu naturalean sortzen diren gatzaga asko dago”.*

XVI. mendean hasi zen Europa eta Adaren arteko merkataritza. Herbeheretarrekin lehenik, daniarrekin gero eta britainiarrekin azkenik, Ada hiri garrantzitsua bihurtu zen Volta ibaiaren bokalean. Produktu askoren salerosketa egin zen, baita giza-kiena ere, esklabuen salerosketarako merkatu garrantzitsua izan baitzen.

## Ikastea maite

Txikitatik neska argia izan dela dio Rosek. *“Ghanan sei urterekin hasten gara eskolan, baina ni bost urterekin hasi nintzen, gogo handia nuelako. Amari negarez eskatzen nion eskolan hasteko”.* Gai-



Bost hizkuntza menderatzen ditu Rosek, baita euskera ere. **Ekhi Belar**

nera, zappi urtekoen gelan sartu zuten, eskolan sartzeko proba egin zuenean besteek baino lan gehiago egin zuelako. Bigarren Hezkuntza amaitu zuenean ama gaitxotu egin zen eta ikasketak uztear egon zen, baina gauzak salerosten hasi zen ikasten jarraitu ahal izateko. Modadiseinua ikasi zuen eta aurrezten zuen diru guztia ikasi ahal izateko erabili zuen. *“Ikastea maite dut”.*

## Maitasunagatik Euskal Herrira

Ikasketak amaitu zituenean modadiseinuaren irakasle moduan ibili zen Cape Coasteko unibertsitate politeknikoan 2009. urtera arte, baina lana utzi eta Euskal Herrira bidean jarri zen. *“2007an ezkondu nintzen, baina nire senarra Ondarroan bizi*

*zen”.* Maitasunak ekarri zuen gurera. *“Ghanan ondo bizi nintzen, ez naiz ezer bila etorri”.* Hala ere, bizitoki atsegina aurkitu du hemen. Ondarroan herri irekia aurkitu zuen, *“eskuzabalik hartu ziguten”*, eta pozik bizi da Eibarren. *“Denetarik dauka-gu eskura hemen”.* Rosek zortzi anai-arreba izan ditu, *“baina bi hil egin dira”*, eta Ghanan bizi dira beste seirak, ama bezala. *“Ahal den heinean eurei laguntzen saiatzen naiz eta 2015ean bisitan etxera joateko aukera izan nuen, baina hemen ikusten dut nire etorkizuna”.*

## Adiskidetasunaren lengoaia

Iñaki, Argia eta Arkaitz jaio zirenetik Rosek ez dauka gauza askorik egiteko denbora larregirik. *“Seme-alabak eskolan dauden bitartean lan egitea gustatuko litzaidake, baina ez dudanez ezer aurkitzen, ikasten nabil”.* Ikasteaz gain, ikaskideekin momentu onak pasatzeko ere baliatzen du. *“Oso jatorrak dira”.* Sozializateaz gain, lagunekin hizkuntzak praktikatzeko aprobetxatzen du eta, Ghanako hizkuntza ofiziala ingelesa denez, ingelesa-irakasle lanak ere egiten ditu ikaskideekin. Hala ere, ga-dangmea da bere ama hizkuntza, eta twi eta ewe hizkuntzetan ere moldatzen da.

**Ga-dangmeraz  
BIDEO MEZUA  
laga digu Rosek.**

**Ikusi ezazu  
[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)  
webgunean**





**DERMITEK**  
 Uribitarte Pasealekua, 11-12  
 Isozaki Dorreak  
 48001 BILBO



Tratamendu-arlo guztietan  
 ISO 9001:2015 ziurtagiria lortu duen  
 EUSKADIKO LEHENENGO KLINIKA DA

## DERMITEK KLINIKA: Barize lodiak kirurgiarik gabe ken daitezke, ebakuntza ostekorik gabe eta saio bakarrean

**MINA, ASTUNTASUNA, AZKURA ETA ZAIN HANPATUAK DIRA, BESTEAK BESTE, BARIZE LODIAK DITUZTENEN SINTOMETAKO BATZUK.** Bilboko Dermitek Klinikako Raquel Lambea doktoreak azalduko digu nola laguntzen dieten Dermiteken pertsona horiei barizerik gabe bizitzen. – **Zain barneko laserra barizeak kentzeko behin betiko metodoa al da?**

Galdera horri gure esperientziaren benetako datuen bidez erantzungo diot: zain barneko laserraren birgaixotze-tasa % 0,6koa da tratamendua bukatu eta hurrengo urtean, hots, oso urrun dago ebakuntza-gela batean operatutako barizeen % 20ko birgaixotze-tasatik eta aparrez tratatutako barizeen % 40ko tasatik.

2010ean hasi ginen zain barneko laserra aplikatzen eta Dermitek klinikan dihardugunok ziurtzat jotzen dugu tratamendu horren eraginkortasuna; hortaz, edozein arrazoi dela eta, lehenengo hamabi hila-beteetan birgaixotzerik gertatuz gero, tratamendua doan emango genuke berriro. – **Zergatik aukeratu du teknika hori Dermitekek?**

Zain barneko laser mota asko dago. Eta horietako batzuk probatu ondoren, Dermiteken 1.320 eta 1.470 nanometroko laserrak aukeratu ditugu lan egiteko, horien emaitzak bikainak direlako eta tratamenduaren ondorengo garaia aparta delako. Zain barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzen dute nazioarteko mailan ezaguri hauek dituelako:

- Birgaixotze-tasa txikia: lehenago esan dudan bezala, % 0,6koa, Dermiteken tratatu diren 1.500 kasuen artean egindako azterlan baten arabera. Kasuen eboluzioa zaindu ohi dugu lehen urtean, emaitza egiaztatuz eta bermatzeko.
- Arrisku gutxiago: teknika ez erasokorra da, hots, kirurgia, ebaki, puntu eta ebakuntza ostekorik gabea.

Anestesia lokala bakarrik erabiltzen da eta saio berean bi zangoetako safena benak trata ditzakegu.

- Tratamendu ondoko deserosotasun gutxiago: pazienteak oinez aterako da klinikatik eta konpresio arineko galtzerdi bat eraman beharko du eta egunean bitan ibili bi astetan zehar, besterik ez.
- Eta berehala hasiko da ohiko bizimodu izaten: gure pazienteek garrantzi handia ematen diote horri.

gazkiak ikusi beharko ditugu, historia klinikoa eta gutxi gorabeherako aurrekontua egiteko.

Hurrengo kontsultan, azaleko zein sako-neko zain-sistemaren mapa egingo dugu, tratamenduaren egunean mediku-taldeari zehaztasun osoz gidatzeko.

Ordubetean eta saio bakarrean burutzen dugu tratamendua. Laserrak, oso zuntz mehe baten bidez, zain gaixoaren barrutik eragiten du eta hori erabat itxi eta desage-



### Zertan datza tratamendua?

Pazientea eta medikua elkartzen diren lehenengo aldian, informazioa ematen dugu doan, hots, diagnostikoa egiten dugu doppler ekografia bidez, arazoa non dagoen zehazteko eta tratamendua nolakoa izango den azaltzeko.

Lehenengo kontsulta hori telefonoz, Skype bidez edo gure web-orriko inprimakia betez ere egin daiteke, nahi izanez gero. Aldez aurretik pazientearen ar-

rrarazten du. Prozesu hori ekografia baten bidez kontrolatzen dugu eta anestesia lokala bakarrik erabiltzen dugu.

Bukatutakoan, pazienteak oinez aterako da klinikatik ordu-erdiz ibiltzera, zangoan konpresio-galtzerdi bat daramala. Ohiko jarduerari berehala ekin diezaioke berriro, lanari ere. Bi egun, bi hilabete eta 9-12 hilabete igaro ondoren ikusiko dugu paziente berritua klinikan, barizea berritua agertu ez dela ziurtatzeko.

Jubilauak pensiño duiñak eskatzeko burrukari ekin zetsela urtebete egin zeban urtarrillaren 15ian eta, hori gogoratzeko, astelehenian manifestaziñua egin eben Eibarko pentsiodun eta jubilauak, Untzaga pentsionisten plataformak, Biztu alkartiak, Aguijupens Debabarrenak eta Duintasuna alkartiak deittuta. Untzagatik abiatu eta jarraixan eurixa hasi arren, jubilauak ez ziran kikildu eta, aurreko urte osuan egindakuari jarraituta, euren eskaeriak herriko kalietan ozen entzunarazi zittuen beste behin.

**JOSE IGNACIO FRONTAURA (Eibarko Pentsiodunen ordezkaria):**

## “Ez dogu atzera egingo eskatzen doguna lortu arte”

**- Urtebeteko mobilizaziñuak eta gero, zelako baloraziñua egitten dozue?**

Baloraziñua positibua da. Gauza gitxi batzuk baiño ez dittugu lortu, baiña edozelan be lorpen guztiak aurrerapausua dirala pentsatzen dogu, oin arte lortu dittugunak gauza txikixak izan arren. Bestiak beste, politikuen agendan sartzia eta geuri buruz berba egittia lortu dogu eta, horrekin batera, hobekuntza txiki batzuk be lortu dittugu, nahiz eta lortutakuak guk eskatzen dittugunetatik oso urruti duguaren oindiok be. Baiña, esandako moduan, lortutako gauza guztiak bidian aurrera egitten laguntzen daben pausak dira eta, horregaittik, Eibarko pentsiodun eta jubilauak gure burrukarekin segiduko dogu, askoz be garrantzitsuaguak diran hobekuntzak lortu arte.

**- Eta zeintzuk dira eskatzen dittuzuen hobekuntza horrek?**


Pensiño duiñak nahi dittugula esaten dogunian, horrekin aditzera emon nahi dogu ez dogula nahi 1.080 eurotik beherako pensiñorik. Alargunen pensiñuak be gitxieneko horretara aillegatzia nahi dogu. Izan be, arlo horretan andra eta gizonen arteko ezberdintasuna oso haundixa da oindiok

be, andrazkuen kaltetan, eta horregaittik gizonezkuiekin bardintzeko eskaeria guztiz bidezkoa dala begittantzen jaku. Horrekin batera, jasangarritasun faktoria bertan behera lagatzia nahi dogu. Politikuak beti dabiz dirurik ez daguala esaten. Ba, hori bertan behera laga ezkerro, hortxe dake dirusarrerak gehitzeko aukeria. Eta, horrez gain, 2011 eta 2013. urtietako lan erreformak be indargabetzia, bertan behera lagatzia eskatzen dogu.

**- Oin dala urtebete hasi zendezen mobilizaziñuen hariara sortu dan mogimenduak ez dauka parekorik. Manifestaziño eta protesta berezixak ez eze, astero astero kontzentraziñuak egitten segitzen dozue, bai hiriburuetan baita Eibarren bezala beste herri askotan be...**

Egixa esateko, egunen batian soziologuak-edo aztertu biharko daben fenomeno edo mugarri moduko bat ezartzen ari garala uste dot. Urtebetian astero astero biltzen segitziak, berdin detsa eurixa, hotza edo edozelako eguraldixa egittia, duintasuna erakusten dabela eta, burrukaren eredua be badala pentsatzen dot.

**- Sarrittan errepikatu dozue zeuen pensiñuen alde mogi-**



Arazua konpontzeko borondate politikua bihar dala pentsatzen dau Jose Ignacio Frontaurak.

**du baiño, zeuen burrukia etorkizuneko pensiñuen aldekoa dala. Halanda be, egitten dittuzuen mobilizaziñuetan gaztiak faltan botatzen dittuzuela be askotan esaten dozue. Zer pasatzen da ba?**

Hala da, gaztiak gehixago inplikatzia nahiko genduke, faltan botatzen dittugu. Askok pentsatzen dabe burruka hau oingo zaharrena eta oingo pensiñuen aldekoa dala, Baiña oingo pensiñuen aldeko burrukia

izanda be, etorkizuneko pensiñuen alde be badihardugu. Horregaittik, horrekin ez konturtzia tristia da. Adibidez, jasangarritasun faktoriak eureri eragiten detse zuzenian, eta ez guri. Holako gauzak eta beste kontu batzuk be ulertu biharko leukiez, eta ez begiratzen geratu, pentsiodunen burrukia eurekin zerikusirik ez dakan zeozer izango bazan moduan. Oin egitten ari diran erreformak oso kaltegarriak dira

**“Gaztiak gehixago inplikau biharko leukie, burrukia euren be badalako”**

## Aldarrikapen nagusiñak

1. Pensiñuak **KPIaren arabera** igotzia
2. Gitxieneko pensiñua **1.080 eurokua** izatia
3. Pensiñuen **erreforma** eta iraunkortasun faktoria **bertan behera** lagatzia
4. Pensiñuak Estatuko **Aurrekontu Orokorrian** sartzia eta diru publikuaren bittartez bermatzia

etorkizuneko pentsionistendako. Pensiño bat jasotzeko eskubidia izateko, kotizau biharreko urtien kopurua igo egin dabe aurten bertan. Eta %100eko pensiñua jaso ahal izateko be, kotizautau euki biharreko urtiak 36ra igo dabe. Eta, horrekin batera, norberaren pensiñuaren kalkulua egitteko 15 urtetik 22 urtera egin dabe aldaketia. Horrelakuen eragiña errez aurreikusi leike: etorkizuneko pensiñuak erabateko pobreziazkuak izango dira.

**- Pensiñuetarako dirurik ez zala geratzen behin baiño gehixagotan entzun dogu. Horren beldur zarie?**

Beldurra hortxe dago beti, ez dogu kontrakorik esango. 60.000 edo 70.000 millioi xahutu dittuan gobernuak ez dau etorkizunerako pensiñuen inguruko inñolako segurtasunik emoten. Baiña, beldurra euki

arren, dirua egon badaguala esaten segitzen dogu, Seguridade Soziala gaur egunian eta etorkizunian bideragarria izatia borondate politiko kontua, besterik ez dala. Pasatzen danna da neurri neoliberalak dirua benetan daguan tokixetan biltziaren inguruan ez dabela ezer entzun nahi.

**- Borondate politikua aittatu dozu. Hauteskunde urtia izanda, politikuk oin arte baiño kaso gehixago egitteko esperantza daukazue?**

Jakin badakigu politikuk interesak bultzatuta mogitzen dirala. Politikuk herrixaren alde egitteko daguezela behin eta barriz esaten bada be, nik neuk hori zalantzatan ipintzen dot. Pentsatzen dot politikuk bere ongizate eta besaulkixari begiratzen detsela beste ezeri begiratu baiño lehen eta, gero, pastelaren zatiren bat sobratuz



Asteroko mobilizaziñuekin segitziatz gain, manifestaziño berezixak iragarri dittue Martxuaren 8rako eta Maiatzaren 1erako, bestiak beste.



Oin arte ez dabe gauza haundirik lortu, baiña eskatzen dabena lortu arte ez dira geratuko.

gero, orduan herrixaren artian banatzen dabela. Baiña beraien interes pertsonalak arriskutan ikusten dittuenian, orduantxe bai, herrixaren interesen inguruan berba egittera derrigortuta ikusten dabe euren burua orduan. Gauzak holan izanda, eta hauteskundiak tartian, pensiñuen gaixari heltzia posible dala pentsatzen dogu.

**- Bixen bittartian, mobilizaziñuekin segiduko dozue?**

Aurreko urte osuan egin dogun moduan, asteroko mobilizaziñuekin segiduko dogu, bai. Ez daukagu atzera egitteko asmorik eta, jendiaren animuak ikusitta, eskatzen dittugunetako asko lortuko dittugula begitnantzen jata.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako garraio txartelak "erabateko interoperatibitatea" izango dute laster. Hori dio Euskadiko Garraio Agintaritzak eta hainbat neurri hartu dituzte azken asteotan helburu hori lortzeko bidean. Txartelen erabilerari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurraldeen arteko mugak apurtzea eta hiru probintzietan txartelen erabilera erabatekoa izan dadila da asmoa. Txartel bakarra sortzea izango da hurrengo pausua.

# Garraio txartel bakarraren bila

**M**ugi (Gipuzkoa), Barik (Bizkaia) eta Bat (Araba) txartelak EAEko garraio publiko guztietan erabili ahal izango dira datozen hilabeteotan, aldiriko Renfe trenetan ezik (Sustapen Ministerioak kudeatzen duelako). 2014an Euskadiko Garraio Agintaritzako (EGA) kideek Interoperatibitatearen Master Plana onartu zuten eta, horren harira, txartel guztiak edozein probintzietan erabiltzeko neurriak hartu dira azken urteotan. Hala ere, oraindik ez zegoen garraio guztietan edozein txartel erabiltzeko aukerarik eta, horregatik, bi neurri hartu behar izan dituzte. Batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Metroaren 1. eta 2. linean Mugi txartela erabiltzeko aukera emango du. Eta bestetik, Bat eta Barik txartelak Lurraldebus zerbitzuetan erabili ahal izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki duenez.

Garraioen sistemetan hainbat egokitzapen egin beharko direnez, oraindik pixka bat itxaron behar izango da neurri honen emaitzak ikusteko. Bizkaiko Garraio Partzuergoak adierazi duenez, bi hilabete barru erabili ahal izango da Mugi txartela Bilboko Metroan. Bestetik, oraindik ez dute zehaztu Bat eta Barik txartelak noiz erabili ahal izango diren Lurraldebus zerbitzuetan. Izan ere, Bat eta Barik txartelak antzematen dituzten elementu teknologikoak instalatu behar dituzte Lurraldebus autobusetan.



*Garraio txartel guztien "interoperatibitatea" du helburu Euskadiko Garraio Agintaritzak.*

Bidaien tarifak ez dira aldatuko eta gaur egun probintzia bakoitzean ezarrita dauden deskontuak aplikatuko dira. Beraz, Mugi txartela Bizkaian erabiliz gero, adibidez, Barik txartelak dituen deskontuak aplikatuko dira.

## Proba pilotua Bizkaian

Euskadiko Garraio Agintaritzaren arabera Euskadiko garraio publikoko bidaiarien mugikortasuna nabarmen hobetuko da neurri horiekin, baina hurrengo urratsa daukate buruan.

EAEko garraio publikoetan txartel bakarrarekin bidaiatu ahal izatea da helburua, elementu fisiko edo birtual gisa, eta Bizkaian esperientzia pilotua abiatuko dute proba bezala. Erabiltzaileek sakeleko telefonorako aplikazio baten bidez bidaiatu ahal izango dute, "erabiltzaileen soslaiarekin bidaiak balio gabetuz". Esperientzia pilotu honen ondorioek garraio publiko erabiltzeko modu berri honen eraginkortasuna, kalitatea, kudeaketa eta segurtasuna ezagutzeko balioko dute.

Arabaren, bestetik, Mugikortasunaren Agintaritzak Bat aplikazioa konfiguratzeko dihardu erabiltzaileek modu erosoan eta edozein ordutan diru-zorroaren karga (ordainketarako pasarela seguruaren bidez), txartelaren mugimendu historikoa eta soslaia kudeatu ahal dezaten. Izan ere, gaur egun Bat txartelaren funtzioak makinetan bakarrik kudeatu daitezke.

## Mugikortasun jasangarriaren legea

EGako kideek eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak mugikortasun jasangarriaren lege aurreproiektuaren zirriborroa aurkeztu dute berriki. Tramitazio prozesuari hasiera eman zaio orain eta lanerako mahaia osatu dute Legebiltzarrean bidali behar den azken dokumentua prestatzeko. Ekinen honekin mugikortasunari buruzko politika legez koordinatu eta agindu nahi da.


Garraioaren eraginkortasuna hobetzeko prestatutako plan teamendu integratuan eta multimodalean ari dira lanean. Legeak pertsonen eta merkantzien garraioaren ardurak jasotzen dituzten printzipio eta lehenetsunak ezartzea du helburu, mugikortasun jasangarriaren garapen integrala lortzeko gizaratearen, ekonomia-aren eta ingurumenaren ikuspegitik. Bestetik, EAEen mugikortasun jasangarria lortzeko beharrezkoak diren tresnak eta prozedurak ordenatzeaz

gain, garraio publikoari eta kolektiboari lehentasuna eman nahi diote, erregai fosilak kontsumitzen ez dituzten baliabideak aukeratuz. Horrela, kable bidezko garraio publikoaren proiektioa, eraikuntza, mar txan jartzea eta ustiapena sustatu nahi da.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2019ko hirugarren lauhilekoan jasoko du lege-proiektua, onar dezan, eta puntu hauek jasoko ditu: Batetik, elementu komun guztiak tarifen diseinuan eta operadoreen koordinazioan sartzea. Bigarrenik, ekonomia-aren eta teknologiaren lankidetzaren mekanismoak formulatzea.



Mugi, Barik eta Bat txartelak EAEko garraio publiko guztietan erabili ahal izango dira laster.



Eta hirugarren, ingurumen-garriobide jasagarrienak bultzatzea eta klima-aldaketaren aurka borrokatzen laguntzen du-

ten energia garbiak erabiltzea. Eusko Jaurlaritzak ohar batean adierazten duenez, "ibilgailu pribatuaren erabilera handia-

## "Mugi txartela Bilboko metroan erabili ahal izango da eta Barik Lurraldebus zerbitzuetan"

ren eta petroliotik eratorritako erregaien erabilaren ondoriozko gizarte eta ingurumen arloko arazoei erantzuna emateko sortu eta bultzatu den kontzeptua da mugikortasun jasagarria". Euren iritziz Euskadi ez da zerotik abiatzen, "baina egungo ereduaren gizarte, ingurumen eta ekonomia arloetako kostuak arintzen lagunduko duten alternatibak

aurkitu eta mugikortasun jasagarria lortzeko aurrera egin behar du". Horretarako, Euskadiko Mugikortasunaren Legea berebizikoa dela deritzo Eusko Jaurlaritzak. "Etorkizuneko mugikortasun eredu modernoagoa eta eraginkorragoa ezartzeko orduan jauzi kualitatiboa modu eraginkorrean ematen lagunduko duen tresna izango da".



**Funeraria-Ehorztetxe**  
**Mugica**

|                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                        |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b><br/> <b>Funeuskadi Eibar:</b><br/>                 Otaola, 27</p>                                                                 | <p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b><br/> <b>SIGMA Industrialdea</b><br/>                 (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> |
| <p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p> |                                                                                                                                                                                                                        |
| <p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p>                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                        |



**centro médico eibar**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
**Orbeako dorreak / 1. solairua**  
 ☎ **943 12 02 00** Faxa: **943 12 02 04**

|                          |                               |
|--------------------------|-------------------------------|
| 1) Kardiologia           | 10) Radiologia                |
| 2) Zirurgia              | 11) Urologia                  |
| 3) Dermatologia          | 12) Traumatologia             |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 13) Koloproktologia           |
| 5) Análisi Klinikoak     | 14) Erizaintza                |
| 6) Ortodontzia           | 15) Foto-depilazio            |
| 7) Otorrinolaringologia  | Unitatea                      |
| 8) Psikiatria            | 16) Ginekologia <b>BERRIA</b> |
| 9) Barne Medikuntza      | 17) Psikologia <b>BERRIA</b>  |

## Abiatu da Gaztearen 28. Maketa Lehiaketa

**AURTEN ERE ABIATU DUTE GAZTEAREN XXVIII. MAKETA LEHIAKETA.** Dagoeneko zabalik dago lehiaketarako maketak aurkezteko epea eta otsailaren 26ra arte egongo da kantuak bidaltzeko aukera. Lehiakide bakoitzak hiru abesti aurkez ditzake. Bozketak fasea, berriz, martxoaren 13an hasiko da. Astebeteko tartean (martxoaren 20ra arte) lehia bizian arituko dira bigarren fase horretarako sailkatzen diren taldeak. Horien artean boto gehien jasotzen dituenak Entzuleen Saria eskuratuko du. Epaimahaiaren Saria norrentzat izango den, berriz, epaimahaikideek erabakiko dute ondoren. Guztira, bost taldek edo bakarlarik lortuko dute final handirako txartela. Eta final handia, berriz, apirilaren 5ean izango da, Bilboko Kafe Antzokian. Bost finalistak bertan arituko dira zuzenean, euren kantuak jende aurrean defendatzen.

Parte hartzeko, Maketa Lehiaketaren webgunean ([www.eitb.eus/eu/gaztea/maketa-lehiaketa](http://www.eitb.eus/eu/gaztea/maketa-lehiaketa)) sartu eta maketak igotzeko formularioa bete. Ondoren, emandako helbide elektronikoan jasotako mezuko esteka zabaldu, fitxategia igo eta bidali, ez da beste ezer egin behar.



### Sari potoloak jokoan

Sariak, berriz, benetan potoloak dira. Sari nagusia (Epaimahaiaren Saria) jasotzen duen talde edo bakarlaririk 5.000 euro eskuratuko ditu eta, horrez gain, Bilbao BBK Live jaialdian aritzeko aukera izango du. Eta entzuleen babesik handiena jasotzen duenarentzat saria 2.500 eurokoa izango da. Horiez gain, beste sari bat ere badago: Kafe Antzokiaren sari berezia. Horren irabazleak 300 euro eskuratuko ditu.

Lehiaketaren antolatzaileen berbetan, *“aurretik dauden aste hauek esku artean dituzten kantuak biribiltzeko balaia ditzakete. Euskal Herriko talde eta bakarlari guztientzat zabalik dago abiatu berri dugun 28. edizio hau. Hori bai, gogoan izan parte-hartzaileek ezin dutela diskoetxe batekin inolako hitzarmenik izan. Bestalde, musika estiloari dagokionez, ez dugu mugarik jarriko. Animatu Gaztearen XXVIII. Maketa Lehiaketan parte hartzera!”*.

## Martxa betean Indianokua gaztelekuan

GazteSpot Lehiaketako irabazleak sari bila joan ziren barixaku arratsaldean Indianokua gaztelekura eta pozarren hartu zituzten zinemarako sarrerak. Argazkian talde irabazleko Malen, Maitane, Aitana eta Ane ageri dira (Uxue falta da). Horrez gain, aurreko asteburuan, barixakuan eta zapatuan, egin zuten hila-bete honetarako prestatu duten disparetea: espageti bat ahoarekin utsita, bi



minutuan ia zeinek makarroi gehiago sartu lehiatu ziren parte hartzera animatu ziren 25 neska-mutilak eta markarik onena Leire Araujok lortu zuen, 9 makarroi sartuta (1'55"). Gainera, urte berriarekin batera robota estreinatuta dute. Gaztelekuko arduradunen berbetan, *“gazteak gustora ibili dira piezak montatu eta pegatinekin apaintzen. Egun hauetan robota eraikitzen joango gara eta, ondoren, mugikorrean deskargatu dugun aplikazioarekin, robotari aginduak ematen joan eta martxan ipiniko dugu”*. Bestalde, gogoratu Komiki Ikastaroko izen-ematea zabalik dagoela (domekara arte) eta, beraz, interesa duenak izena emateko aukera baduela.



LIKIDAZIOA  
Jubilazioa  
dela-eta



San Agustin, 2  
943 203762

[www.desvan.net](http://www.desvan.net)



**38 urte** eta gero, denda itxiko dugu. Eskerrak eman nahi dizkiegu gure bezeroei, urte hauetan gudan ezarrirako konfidantza guztiagatik.

Laister arte!

# Eibarko La Salle



Matrikula zabalik: Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

[www.lasalleeibar.com](http://www.lasalleeibar.com)

2 urtetik 16 urtera

943 20 21 33 / 943 12 16 98

*izaro apraiz*

“Hasiera berriak gogorrek diren arren, badute bere alde polita. Erronka berri horri gozotasuna bilatzen badiogu”

## Esatera zaharrak, hasiera berriak

“*Egon hadi lo eta jango dun/k mehe*” dio esatera zaharrak. Batzuetan erronka berriek, etorkizunarekiko ezjakinak, ezezagunarekiko beldurrak geldiarazten gaitu, izozten gaitu, erreakzionatzen eta erabakiak hartzen utzi gabe. Gaur egungo gizarte kompetitibo honetan, ezin lokartu, atzetik datozkigu eta guk hartu ez ditugun erabakiak hartzeko prest dauden infinitu hautagai.

Ez ahaztu, “*gogoa den tokian, aldaparik ez*”. Momenturen batean, txikia bada ere, indar izpi bat sentitzen baduzu, eutsi horri indarrez eta gogoratu “*beldur denaren ezpatak punta motz*” duela.

“*Ez dun/k larrosik arantzarik gabe*” eta ez dira bide guztiak ibiltzeko errazak izango. Hasiera berri guztiak eskatzen dute ahalegina, ausardia eta batzuetan sakrifizioa. “*Garaipena, neke askoren ondorena*” dela diotenek badakitelako ez dagoela malda luze bat igo eta gerokoa baino tontor gozoagorik.

“*Inor ez da ikasia jaiotzen*”, hau bai hau benetako egia! Bizi-

tzako fase berri baten aurrean parez pare aurkitzen garenean, zenbat galdera izaten ditugu buruan? Zenbat duda? Ze konfiantza falta gure gaitasunengan? “*Erroriz ikasten da oinez*” eta hanka sartzen ere asko ikasten da, batez ere nork bere buruari buruz.

“*Ametsa gogoaren igandea*” bada, eta astelehen luze batean sentitzen baduzu zure burua, ez ahaztu ez zaudela bakarrik aurrean duzun bidearen atarian eta, nik bezala, badituzula ondoan orduak zurekin gaintzeko prest dauden lagunak. “*Adiskide onekin, egunak labor*” direnez, astelehenak igande bihurtuko zaizkizu konturatu orduko.

Hasiera berriak gogorrek dira bai, baina badute bere alde polita. Ikasi, deskubritu, eraiki, ibili eta gozatzen da behin aurrerako bidea hartzea erabakitzen dugunean. Eta erronka berri horri gozotasuna bilatzen diogun bitartean “*zer egingo diagu ba? Hil arte bizi*”.

*asier azkue*

“Eibarren gauza asko hobetu daitezke, baina nork nahi du ipurdia mugitu albokoak egiten duena kritikatu gabe?”

## Eibar ozpina

**Facebook-eko Eibar opina foroan gure herriaran inguruko gai desberdinak komentatzen dira:** trafiko arazoak, lapurketak, ke-xa politikoak, poliziak jarritako isunak, gertakariak, etab. Foro honek ezagutzen ez ditugun edo anonimoak diren herriko pertsonekin solasaldian egoteko aukera ematen digu. Beti munduko babes guztiarekin, noski. Pantaila baten atzean egoteak beti ematen digu aurpegira gauzak esateak ematen ez digun segurtasuna eta lasaitasuna.

Hala ere, ez da eztabaidatzeko eremurik gomendagarriena; izan ere, helburua ez da beste erabiltzaileekin ados jartzea, baizik eta garatzen den atmosfera egozentriko eta toxiko horren baitan, zarrata ateratzea. Interneteko foruetan denok gara justizian, kazetaritzan edo politikan doktoareak; denok daukagu alkateari ehunka proposamen egiteke eta herriko alderdi politiko guztiak kritikatzeko ahalmena edo jakinduria. Izan ere, edozer gaitan gara adi-tuak. Klik bat eta kitto.

Oilatagietan bezala, Eibar opina foruan ez dago inolako kon-

trolirik, ez eta moderaziorik, anarkia hutsa da eta komentatzen diren gertakari ia gehienak bertako oiloak eta troll delakoak elikatzeke balio dute. Berehalakotasunak eskaintzen dizkigun abantailak dastatzea da helburua, hots, eskusiba edukitzea eta lehenengoak izatea iritzia ematen, gure ego maitea komentario positiboan bidez gizentzeko. Ondorioz, denbora libre asko dutenentzako aproposak diren amaiera gabeko eztabaidak sortzen dira.

Argi dago Eibarren gauza asko hobetu daitezkeela, baina noski, nork nahi du ipurdia mugitu albokoak egiten duena kritikatu ahal bada? Amaitzeko: kritika praktikara eramanez nahi badezute, joan zaitezte udaletxera, antolatu eztabaidetarako batzar alternatiboak, ezagutu erakunde desberdinek egiten dituzten ekitaldiak edo kexatu zaitezte kexatu beharreko leketan, baina ez torturatu amaiera gabeko komentarioen bidez Facebook-en lasaitasun bila sartzen den pertsona oro. “Eibar opina tortura y asesina” zioen kaleko graffiti batek: egia ote?



**Kanpoko  
hotzaren  
aurrian...**

**...ETXEAN  
BERO-BERO**

2019ko  
urtarrila

fonta.amana@gmail.com



**AMAÑA**  
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA  
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia



Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637

**Jardines Iturgintza**

Jardiñeta, 11 B info@fontaneriajardines.net



**ELEKTIBAR, S.L.U.**  
**ELEKTRIZITATEA**  
**PROIEKTUAK**  
**ARGIZTAPENA**  
**INSTALAZIOAK**

- \* Denetarikoa **ERREFORMAK**
- \* **TELEKOMUNIKAZIOAK**
- \* **ATE AUTOMATIKOAK**
- \* **BERO URDINA**

**JOSU BENGEOA**

Indalezio Ojanguren 2, behea EIBAR  
☎ 943 70 05 42 Faxa: 943 53 02 31 electibar@gmail.com  
Aurrekontuak konpromezurik gabe



## Zer da zoru erradiatzailea?

Zoru azpian uniformeki banatutako hodi sare bat da. Hodi hauetatik ura joan-etorrian dabil, eta honela tenperatura atsegina lortzen da neguan zein udan.

### Kalefakzio aroa

Ura 35° eta 40° arteko tenperaturaren pasatzen da zorua-  
ren eta 3 eta 5 zm arteko mortero geruza baten azpitik.  
Beroa zoruak banatzen duenez, erabiltzaileentzako ten-  
peratura bikaina lortzen da. Gainera, metodo honen bi-  
dez energia aurrezten da, gela edo areto baten behar  
termiko handienak beronen beheko aldean baitaude.

### Hozte aroa

Bero handieneko aroetan giroa hozteko erabil daiteke  
instalazio berbera. Kasu honetan ura 17° inguruan ibili-  
ko da zorupetik, era honetan gehiegizko beroa xurgatuz  
eta freskura eskainiz.

### Osagaiak

- **Xafla isolatzailea:** Bere funtzio nagusia azpiko bero galerak gutxitzea da, energia kontsumoa murriztuz. Honez gain, isolatzaile akustiko funtzioa ere egiten du.
- **Banda perimetrala:** Xaflen ertzak isolatzen dituen eta instalazioaren eta hormen arteko banaketa bermatzen duen espuma banda da.
- **Hodia:** Berotu beharreko azaleran zehar ura garraiatzen duen elementua da.
- **Mortero xafla:** Zolaren estalkia (egurra, keramika...) jasaten duen zementuzko xafla.
- **Banaketa kolektoreak:** Ur emariak instalazioaren zirkuito desberdinetara banatzeko balio dute.
- **Erregulazio klimatikoa:** Kanpoaldeko baldintza klimatikoak kontuan hartuta, zoru erradiatzaile sistemen egokitasuna kontrolatzen duen atala da.
- **Gunekako tenperatura kontrola:** Elementu honekin gela bakoitzeko tenperatura era independentean kontrolatzen da.



**Lagunak**  
erreformak

**galdara eta kalefakzio  
PROMOZIOAK**

lerreformak@gmail.com

943 70 26 12 - 625 185 122

Estaziño, 14 behea

- ▼ Erreformak
- ▼ Iturgintza
- ▼ Gasa eta kalefakzioa
- ▼ Gremioen koordinazioa
- ▼ EIT (Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa)
- ▼ Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria
- ▼ Arkitekto Tekniko Lan/Zerbitzuak



**bravo**

ITURGINTZA • GASA • KALEFAKZIOA

-ERREFORMAK  
-ITURGINTZA  
-GALDARA ALDAKETAK

-GASA ETA KALEFAKZIOA  
-GREMIOEN KOORDINAZIOA  
-LURZORU ERRADIATZAILEA

Tel. 629 977 057

fontaneriabravo@gmail.com

Bista Eder, 13

**SARGORI**

**BEROKUNTZAK S.L.**

**GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOA  
ITURGINTZA / MANTENIMENDUA  
AIRE EGOKITUA / ATERATZE ETA AIREZTAPENA**

**San Agustin, 2-4 - J lokala**

**Tel. 943 53 02 01 Faxe. 943 53 15 03**

## Berogailu-sisteman dirua nola aurreztu

Azken hamarkadetako gehiegikeriek planeta arrisku larrian jarri dute eta ahalik eta energia gutxien kontsumitzea ezinbestekoa da. Gainera, dirua aurrezteko modu ona eta erraza da.

Isolamendu eta berogailu sistemei dagokienez, egunez eroso egoteko tenperatura egokia 19-21<sup>o</sup>koa da. Gaeuz, hobe da berogailua itzalita edukitzea. Berogailua pizten denean, pertsianak jaitea eta gortinak ixtea komeni da, bero galerak saihesteko. Hegoalderantz orientatutako leihoetan, ordea, ez da hori egin behar eguzkiaren beroa aprobetxatzeko.

Bestalde, alfonbrak aukera ona dira lur hotzetako isolamendua hobetzeko. Eta altzariak ez dira erradiadoreen ondoan jarri behar.

Urari dagokionez, berogailu sasoi ez denean galdararen hautagailua ACS bakarrik posizioan jarri behar da. Hala, ura ez du horrenbeste berotuko. Komunean ura aurrezteko metodo merke bat tangan edo zisternan urez betetako botila bat edo bi jartzea da: husten dugun bakoitzean ura aurreztuko dugu. Bestalde, txorrotetako tanta jarioak konponduz gero, hilero 100 litro ur xahutzea saihestu dezakegu. Eta dutxa 5 minututik gora ez luzatzen saiatu behar da. Izan ere, denbora hori nahikoa da higiene pertsonala mantentzeko.

## Gas galdarak: istripuen prebentziorako aholkuak

### AIREZTAPENA

- Gas-aparatuak dauden geletan haizea berritzeko sareak jarri behar dira.
- Ezkaratzeko sareak ematen duen terraza edo esekilekua kristalez itxiz gero, orduan terrazan jarri behar da saretak.
- Galdaretan tximinia jarri behar da errekuuntzaren gasak kanpora isurtzeko.

### SUGARRA

- Zaindu gasaren sugarra. Egonkorra, isila eta urdinkara (sekula ere ez horia edo gorrixka) izan behar du. Hori da funtzionamendu onaren seinale.

### NEURRIAK

- Goma malguko hodia erabili bada, begiratu iraungitze-data.
- Jaboi-disoluzioa erabilia, ziurtatu aldiro-aldiro lotuneetan (giltzak, lotuneak, kontagailua...) ihesik ez dagoela. Ez erabili sekula sugarrak.
- Luzaroan erabili behar ez baduzu, zarratu pasoko giltza. Egin kasu fabrikatzailearen jarraibideei eta berrikusi aldiro. Ez jarri material korrosiborik galdaratik gertu.



# IGAKRISTALDEGIAK

## KRISTALDEGIAK

TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 -EIBAR-  
Tfnoak. 943 70 25 41 / 670 21 46 25 Faxa. 943 70 24 95

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:

Birjiñape, 1 behe Tfnoa. 943 20 20 40  
cristaleriaiga@gmail.com

TAILERRA:  
Errekatu, 3


CLIMALITekin **isolatzaile onena lortuko duzu**  
akristalamendu bikoitzaz

## ACHA Kristaldegia

ERAKUSKETA: eta faxa: 943 20 39 03  
Arikitzaneko Zubian info@cristaleriaacha.com

## VENTANAS ONA<sup>®</sup> LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.



Bidebarrieta, 28 - behe  
Tel. eta Faxa: 943 20 28 28  
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415  
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com



## IZARRAITZ LEIHOAK-ERREFORMAK

Leihoak - Pertsianak - Bainuak  
Toldoak - Manparak - Ateak  
Parketa - Era guztiko erreformak  
Peoren konponketa...

Bidebarrieta, 48  
Tel. 943 25 60 26

EIBAR (SONIA)  
ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com



**Aluminiozko eta PVC-ko aroztegia**  
baita toldoak, gortinak,  
estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behe  
tel. 943 12 13 67 • www.ulmar.net

ERAKUSKETA: Urkizu, 26 • Tel. 943 12 74 01



## Eredu izaten jarraitzeko borroka

Egogain gerontologikoko langileek bi urte daramatzate Gipuzkoako Foru Aldundiari hainbat eskakizun egiten, *“baina orain arte eskaera guztiak ukatu dizkigute”*, esan digu Iñaki Mariskurrena Egogaineko langileak. Nagusien egoitzako zuzendaritzak hartutako azken neurrien aurrean, ordea, langileek planto egin dute eta kalera atera dira. Borrokaldia jarri dute martxan eta lan-baldintza duinak lortzea dute helburu, *“egoitzako erabiltzaileek merezi duten arreta jaso dezaten”*.

**M**endekotasun handia, adimen urritasuna eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonak artatzen dituzte Egogain gerontologikoan. *“Zaindu eta maitatu egiten ditugu, gehienek hemen egingo baitituzte euren bizitzako azkeneko urteak”*, diote langileek, *“eta behar duten bizitza duina eta merezi duten kalitatezko arreta eskaintzeko egiten dugu lan”*. Zentroak 134 erabiltzaile zituen iaz (149 jasotzeko gaitasuna zuen), zazpi solairutan sailkatuta, eta nagusien beharriaren arabera sailkatzen dira. Hau da, solairu batean mendekotasun handia duten erabiltzaileak daude, beste batean gaixotasun mentalak dituztenak, eta horrela. 2019an orain arte hutsik egon den zortzi-

garren solairua egokitu eta zabalduko dute eta 17 pertsona hartu ahal izango ditu, hau da, 166 erabiltzaile izango ditu egoitzak guztira. Zaintzaile kopurua, ordea, ez da aldatuko. *“Iaz egoerak gainezka egiten zigun, pentsa orain zer izan daitekeen”*, dio Mariskurrenak.

Mendekotasun handiko zaintza egiten dute Egogaineko langileek. *“Atsedaldia daukagunean, adibidez, langile bakarra gertatzen da hogeit hamar pertsona baino gehiago zaintzen, eta garabiarekin eraman behar izaten ditugu”*, Mariskurrenak dioenez. *“Bi langileen artean lan egitea zaila bada, pentsa pertsona bakarrak nola egin dezakeen”*. Izan ere, langileen kezka nagusietako bat gerontologikoko erabiltzaileei eskaintzen zaien arretaren kalitatea da. Gainera, lana behar den bezala egin ezean langileak kezkatu egiten dira eta lan honek duen karga fisiko handiari karga psikologikoa gehitzen zaio. *“Osasun arazoak izaten ditugu horrelako lan kargekin”*.

Egogaineko langileen iritziz ezarritako ratioak ez dira egokiak. Baina zer dira ratioak? *“Erabiltzaile bakoitzeko zenbat lan-*

*gile behar diren, beti ere erabiltzaileen egoera kontuan hartuta”*, Itziar Barrueta-beña Egogaineko langilearen berbetan. *“Gure aurka erabiltzen duten argumentua da beste zentro batzuekin alderatuz gure ratioa askoz ere hobeagoa dela, baina esperientziak erakutsi digu gure ratioekin egoerak gainezka egiten digula. Beraz, ratioak ez dira egokiak kalitatezko zerbitzu bat eskaintzeko eta, gainera, beste zentro batzuetan ratioak okerragoak badira ere, gure egoera okertu behar dugu beste zentroekin parekatzeko? Azken batean pertsonen zaintzaz ari gara berbetan”*.

### Zaintzaile izendapena

Egogainen zaintza postuetan zeuden langileei erizain-laguntzaile izendapena kendu zieten orain dela hainbat urte eta zaintzaile izendatu zituzten. Ez da izen aldaketa hutsa, langileen baldintzak ere ezberdinak direlako. *“Osakidetzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez dute izendapen hori onartzen, nahiz eta funtzio berak izan”*, dio Barrueta-beñak. *“Langile guztiak ez gara finkoak eta zaintzaile izendapenaren barruan egindako urte guztiek ez dute kontatuko beste administrazio baten aurrean”*. Hau da, Osakidetzan erizain-laguntzaile bezala lan egiteko oposaketa batera aurkeztuz gero, zaintzaile bezala lan egindako urteek ez dute kontatuko Egogaineko langileentzat. *“Ezin dugu egindako lana demostratu”*.

**“Nagusiak zaindu eta maitatzen ditugu, gehienek hemen egingo dituztelako bizitzako azken urteak”**

Orain dela urte batzuk Imsersoko nagusiak ziren gerontologikoko erabiltzaileak, *"balidoak zirenak"*, Barruetabeñaren berbetan. *"Gizartea aldatu egin da eta gero eta urte gehiago hartzen ditugu, eta pertsona baten egoera ez da berdin 60 edo 100 urterekin"*. Lehen gelazain asko eta erizain-zaintzaile gutxi zegoen, baina aipatutako bilakaerarekin erizain-zaintzaile gehiago behar ziren, *"eta zaintzaile postua sortu zuten, gelazainek azterketa bat gaindituta izendapen hori lortzeko"*. Orduan, azterketa gainditu zuten gelazainak eta erizain-laguntzaileak izendapen berean batu zituzten. *"Nik, ordea, ordezkapenak egiten nituen eta erizain-laguntzaile titulazioa eskatu zidaten"*, Barruetabeñak dioenez. *"Izendapen aldaketarekin funtzio aldaketa ere egon beharko litzateke, baina nire funtzioak berdinak izaten jarraitu zuten (sendagaiak eman, laginak hartu, garbitu...)"*.

### Zerbitzuen pribatizazioa

Denborarekin hainbat lanpostu *"desagerrarazi"* dituzte (ordenantza, mantentze-langileak, administrariak), *"eta zerbitzua enpresa pribatuen esku lagatzen ari dira"*. Clece enpresak jartzen ditu gaueko eta asteburuetakozko zaintzaileak, gelazainak, garbitzaileak, eta abar. *"Orain arte asteleheneretik barixakura arteko zaintza Aldundiko langileek burutu dugu"*, diote Egogaineko langileek, *"baina solairu bakoitzeko langile kopurua murrizteaz gain, azpikontratak sartzeko asmoa agertu digute"*.

Arreta zaintzako lanpostuak desagerrarazteaz gain, *"etorkizunean gehiago murrizteko asmoekin dabilta"*, Mariskurrena eta Barruetabeñak azaldu digutenez. Gainera, egunerokoan ere langileen bajak eta lanaldien murrizketak ez dituzte betetzen, eta momentu horretan lanean daudenek egin behar dute falta diren langileen lana.



Langile gehienek babesa jaso du borrokaldiak.

### Eskaerak eta mozioa

Egogaineko langileen gehiengoak eman dio atxikimendua borrokaldiari eta LAB, ELA, CCOO eta Bazkuna sindikatuek bat egin dute. Kalera irten direnean babes osoa sentitu dute, ez zentrokoez aldetik bakarrik, baita erabiltzaileen eta herritarren aldetik ere. Pare bat protesta egin dituzte egoitza kanpoan, eta Eibarko EH Bildu eta Podemos Ahal Dugu alder-

di politikoen babesa jaso dute. Hilaren 28an, astelehenean, mozioa aurkeztuko dute Udal Plenoan.

Honako hauek dira Egogaineko langileen eskaerak: *"Eibarko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari Egogain egoitzan zaintza profesionala eskaintzeko exijitza; erizain-laguntzaile izendapena onartzea; emakumeek historian zehar egindako lanaren profesionalizazioaren onarpena; Eibarko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari kalitatezko arreta integrala eskaintzeko beharrezko baliabideak jartzeko eskatzea; horretarako beharrezkoak diren giza-baliabideak eta baliabide materialak jartzea; erabiltzaile gehiago badago, langile gehiago jartzea; erabiltzaileek merezi duten arreta jasotzeko erabiltzaile/langile ratio egokiak ezartzea; eta azkenik, zerbitzu publikoa izaten jarraitzea"*.

Esakera hauek ez dituzte euren beharrei edo erabiltzaileei begira bakarrik egiten. *"Eibarko egoitza Gipuzkoan eta Euskal Herrian eredu izaten jarraitzea nahi dugulako eskatzen dugu guzti hau"*.





Martitzeneko 18.30ak dira eta San Andres elizako parrokia-etxeko gela batean kafe usaina dago. Pasta eta galletak daude mahai ganean eta hainbat mezu dituzten paperek dekoratzen dute pareta. Jendea sartzen hasi da eta kafea hartzen dute aulkietan eseri aurretik. Euskadiko Jokalari Anonimoen eta Familiakoek Elkartekoak (JAFE) dira, 'Egun bat' taldekoak. Anonimoak dira, baina taldearen atea zabaltzen dizkiote jokoaren arazoa gainditu nahi dutenei (699377520 telefonora deituta).

## Jokoa amaitu da

**J**okoa uzteko gogoak bulztatuta iritsi ziren elkartera 'Egun bat' taldeko kideak, eragindako eta jasandako sufrimendua albo batera utzi eta jokorik gabeko etorkizunaren bila. Astean birritan biltzen dira San Andres elizako parrokia-etxean, 18:30ean martitzetan eta 17:30ean zapatuetan, baina eguneroko borroka da eurena. Ez dute bidea bakarrik egiten, familiakoekin batera egiten baitiote aurre gaitzari, eta taldeko beste kideen adiskidetasuna eta babesa berebizikoa da euren iritziz.

2017ko azaroan hasi ziren San Andres elizako parrokia-etxean biltzen, baina taldeak hogeita hamar urte daramatza martxan. "Hasieran jokoarekin arazoak zituzten lagun bi Ondarroako taberna batean biltzen hasi ziren, gero Bilboko jendea batu zen eta Bilbon beste talde batzuk hasi ziren, baita Elgoibarren ere, eta 2017an Eibarrera etorri ginen".

Konfiantzazko espazioa eratu dute parrokia-etxean eta gertatzen zaienaren berri ematen diote elkarri. "Barruan daukagun guztia askatzen dugu hemen, konfiantza osoz", diote. "Hemen inork ez gaitu epaitzen, inork ez digu esaten zer egin edo zer ez. Bakoitzak berea botatzen du eta besteok



entzun egiten dugu, beste bariarik". Auto-laguntzarako terapia-taldea da eta horrela egiten diote aurre jokoaren adikzioari, psikologo edo bestelako profesionalen laguntza barik.

### Jokoa uzteko 12 pauso

Jokatzeari uzteko nahia duen edonor sartu daiteke

'Egun bat' taldean, eta jokalariek eta familiakoek hartzen dute parte martitzen eta zapatuetako bileretan. "Gaixotasunak familiakoak kutsatzen dituelako". Horrela, jokalariek eta familiakoek elkarrekin egiten dute bidea, "modu paraleloan". Gainera, taldean sartzeko ez da ezer ordaindu behar,



eta laguntza anonimo eta bolutarioekin mantentzen da.

'Egun bat' taldekoek esan digutenez, hondoa jo behar da gaitz honetatik irteteko. "Jokalariek sendatzeko nahia izan behar du, bestela jai dago". Euren helburu nagusia jokatzeari laga eta beste jokalariek berdina egin dezaten laguntzea da. "Sufritzeari uztea, azken finean". Horretarako, Alkoholiko Anonimoen ereduari jarraituta. 12 pauso jarraitzen dituzte adikzioa sendatzeko eta beste 12 urrats taldearen batasuna sustatzeko. "Zailena lehen pausoa da, jokoarekin arazoa duzula onartzea".

Bilerak egiten dituztenean gai baten inguruan jarduten dute eta, ondoren, norbaitek arazo edo kezka bat badauka, denen aurrean azaltzen du. "Barruak askatzera etortzen gara hona", eta bata besteari itxaropena eta indarra transmititzen saiatzen dira.

Jokoaren adikzioa sendaezina dela diote 'Egun bat' taldeko kideek. Beraz, eurentzat berebizikoa da bileretara joatea. Jende berria sartu eta irten da taldetik, baina nukleo egonkorra osatu dute. "Bileretara etortzeko irrikitan egoten gara". Izan ere, gaitzari aurre egiteaz gain, adiskide handiak aurkitu dituzte bertan.

## Marka berria Eibarko emakumezkoen errugbian

Aurreko domekan Getxon irabazitako neurketak denboraldi honetarako eibartarrek zuten maila igotzeko helburua betetzea ekarri du ia. Fadurako zelaian Ohorezko A mailako talde ohia 0-21 irabazita, getxotarrengandik puntu bakarrera daude orain Eibar Rugby Taldekoak, baina partidu bat gutxiagorekin. Gauzak horrela, eura dira orain Ohorezko B mailara igotzeko hautagai nagusienak. Harmailak betirik izan zuen partiduan, hasieratik erakutsi zuten joko serioa eibartarrek. Lehen zatia amaitu baino lehen, 40. minutuan, lortu zuen lehenengo entsegua Nerea Garciak. Eta bigarren zatian gauzatutako beste biek, Asmael Durdi eta Amairu Mayoren



Getxon partidua irabazi ondorengo argazkia.

eskutik, garaipen argi bezain erabakigarria eskaini zieten Eibartik haraino joandako zaletu guztiei.

Gizonezkoen lehen taldeak ere garaipen landua eta garrantzitsua eskuratu zuen, az-

ken honek Unben, A Coruñako CRAT sailkapeneko hirugarrenari 26-22 gailenduta. Emaizta horrekin eibartarrek beste jauzi bat eman dute sailkapeneko erdialdeko postuetara gerturatuz.



## Eibar Eskubaloia argazki-saioa egingo du gaur Kiroldegian

Eibar Eskubaloia antolatutako ekitaldia 19:00etan hasiko da eta bertan klubeko jokalariek guztien argazki ofiziala egingo dute. Bestalde, azken asteburuko jardunaldiari erreparoa eginez, senior mailako gizonezkoen talde biek euren partiduak irabazi zituzten moduan, emakumezkoenak amore eman behar izan zuen Usurbil liderarren aurrean (26-18). Porrotarena ez zen berri txar bakarra izan partidu horretan, Nahia Basterrari airean zegoela egindako sarrera desegokiak hiru hilabeterako gutxienez lagako diolako jokatu barik. 1. Maila Nazionalako Somosek ondo irabazi zion sailkapenean atzetik duen Romo Indupimeri (29-21), atsedendira ere 14-11 aurretik erretiratu eta gero. Gisasolak, 10 golekin, eta bigarren leerroari joko bikain banatu zion Garetxanak izan zuten partiduaren giltza denbora guztian. Haritzak bere bide bikainari jarraitzen dio eta 19-30 nagusitu zitzaion Salento Elgoibarri. Anabitartek, golak sartzen, eta Unai Gallastegik, joko banatzen, izan ziren eibartarren jokoaren ardatza.

Harrobiari erreparoa eginez, ez dago talderik kadete mailako Teknikerri aurre egin diezaiokeenik (44-16 Urnietari). Jubenil mailakoak 32-26 irabazi zion Arrasateri eta, infantiletan, nesken Bengoa eta mutilen H. Servando garaile izan ziren euren neurketetan.

## Jugger jardunaldia izango da domekan Unben

Gure herriko Arima Galduek talde berriarekin batera, Bilboko Mitos, Iruñeako Navarrocros, Kantabriako Rampage eta Xixongo Northwalls izango dira parte hartzen domekarako antolatutako kirol horretako lehenengo jardunaldi benefikoan. Egurdiko 12:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte iraungo duen lehiaketa Unbenko errugbi zelaian jokatu da eta izen-emateen dirua animaliei laguntzeko izango da, Marcan Huella eta Katubeltz elkarteek (euren stand-a egongo da bertan) bultzatutako ekimenaren barruan.

**I. JARDUNALDI BENEFIKOA I. JORNADA BENEFICA**  
**JUGGER**  
27/01/2019  
12hr-18hr  
espaino RUGBY zelaia  
Unben, EIBAR  
KATUBELTZ  
MARCAN HUELLA  
Izen-emateen dirua animaliei laguntzeko izango da.  
El dinero de las inscripciones será para la ayuda de los animales.  
Elkarteen stand-a egongo da.  
Habrá stand de las asociaciones.  
ORGANIZA: PATROCINA: COLABORAN:  
FOR EIBAR

## Avia Eibar Saskibaloia berriro helduko dio Ligari bihar

Ipurua kiroldegian, hau da, bere kantxan hartuko du sailkapen erdialdetik behera dagoen Chicano Bulls taldea. Partidua ohiko orduan hasiko da, 18:15ean, eta Iñaki Sanchezek zuzentzen duen taldea faboritua da partidua bereganatzeko. Lurraldeko 3. Mailako bigarren multzoko liderrak dira eibartarrek, Saski Axularrekin berdinduta: orain arte jokatu dako berderatzi partiduetatik bakarra galdu dute talde biek. Gertutik jarraitzen dizkie Astigarragako Mundarrok, partidu bakarrera, eta hiru horien artean egongo da lidergoa jokoan, Mondragon Unibertsitatea laugarren sailkatua lau partidura dagoelako fase hori amaitzeko bost partiduren faltan.



## Pilotari afizionatuen hiru partiduko jaialdia gaur Astelenan

Hiru partiduk osatuko dute gaur arratsaldeko 19:00etan Astelena frontoian hasiko den jaialdia, hirurak ere Eibarko Klub Deportiboko pilotariak protagonista izango dituztenak. Hasteko, Pilota Eskolako bi bikoteen arteko norgehiagoka ikusteko aukera izango da, Segurola/Araolaza eta Urkiaga/Fernandez eibartarren artekoa. Jarraian, infantil mailan, Deporreko Ibarra/Iraolagoitia bikoteak Elgoibarko Lagunak klubeko ordezkariari egingo die aurre. Eta, amaitzeko, helduen mailako partiduan, Narbaiza/Agirresarobe bikotea Errenteriako EPLE taldekoei nagusitzen ahaleginduko da.



Camina eta Azkargorta kadete mailako bikotea.

Aurreko barixakuan jokaturako jardunaldian izandako emaitzak hobetzea ez dute erraz izango Deporrekoek, orain dela aste bete eibartarrak nagusitu zirelako norgehiagoka guztietan: seniorretan Narbaiza/Agirresarobe garaipen ezin estuena (22-21) lortu zuten Donostiako Euskal Giroa ordezkarien aurrean; kadeteetan Azkargortak eta Caminak osatutako bikoteak, denboraldi bikainarekin jarraituz, 22-11 irabazi zion Andoaino Gaztelekukoari; eta, Pilota Eskolako artekoan, Gil/Olaetxea eta Uria/Amillategi bikoteek partidu polita eskaini zuten, azkenean lehenengokak 22-20 irabazteko.

## Azkena Adahik aurrea hartu du foball-zaletuaren txapelketaren erdira heltzean

Aurreko asteburuan bigarren itzulia hasi zuten KirolBet ligan parte hartzen duten taldeek eta, sailkapena argitze aldera, lehen bi sailkatutako arteko berdinketak Azkena Adahiri abantaila eman dio: atzetik duen (eta aurrari zailena izan daitekeen) Garajes Garciak bost puntura jarraitzen du. Durangok egin du bat honekin azken jardunaldian Slow XOK-i 3-0 irabazi eta gero. Badirudi hirukote horren artean

izango dela txapela jokoan. Orain arte eurak dira gol gutxien jaso dituzten taldeak (14 Durangok, 15 Azkenak eta 19 G. Garciak) eta gol gehien sartu dituztenak (49 Azkenak eta 45 G. Garciak). Goleatzaileen sailkapenean, Azkena Adahiko Kepak 24 sartu ditu 13 partidutan eta alde handia ateratzen dizkie hurrengokoei: Garajes Garciako Landa (13), JMR Erreformak-eko Hichan (12) eta La Jarako Pedro (11).

## Deporreko xake taldeek berdindu eta galdu egin zuten azken jardunaldian

Gipuzkoako 1. Mailan jokatzeko duen Eibarko Klub Deportiboko lehen taldeak bina berdindu zuen Arrasate-Arlutz B taldearekin zapatuan Deporren jokaturako norgehiagokan. Jose Antonio Garridok bere partida irabazi zuen, Jon Aranak eta Mikel Larreategik eurenak berdindu, eta Jon Esturok galdu egin zuen berea. Deporren bertan

hasi zuen liga 3. Mailan jokatzeko duen gure herriko bigarren taldeak eta garbi galdu zuen Olan Arkitekturarekin (0'5-3'5); Adrian Martinek bere partida berdinduta, beste hiru taldekideek euren galduak zuten bitartean.



Jon Arana eta Aitor Beorlegi.



## Urbat waterpolo talde guztiak garaile argiak azken jardunaldian

Asteburu ezin arrakastatsuagoa izan da Urbat-Urketonikoko taldeek burututakoa, hasi seniorretik eta infantiletaraino maila guztietako taldeek irabazi zutelako, nagusitasunez gainera. Orban jokaturako Kopako final-laurdenetako partiduetan, senior mailako gizonezkoen taldeak 11-3 kanporatu zuten Fortuna eta emakumezkoenak 21-9 Larraina. Bihar Irunen jokatu be-

harreko lauko finalerako txartela eskuratu dute talde biek eta, erraza ez bada izango ere, txapelaren bila abiatuko dira Cerchik prestatutako taldeak. Jubeniletako emakumezkoen taldeak 17-1 irabazi zion Sestaori eta, maila gazteagotara jaitsita, Eibarko kadeteek 22-1 nagusitu zitzaizkien Castellaekoei eta infantilek 2-16 irabazi zuten Larrainaren igerilekuan.



## Espanyol ondo gaindituta, sailkapenean aurrera egiteko asmoz joango da Eibar Leganesera

Aurreko astelehenean jokoak eta emaitzak bat egin zuten behingoz eta Mendilibarren mutilek 3-0 gainditu zuten Espanyol. Garaipen horrekin Eibar FT 11. postura igo da sailkapenean; hala ere, talde asko dira puntu gutxiren aldearekin eta horietako bat da Leganes: eibartarrendandik hiru puntura, irabaziz gero berdinduta geratuko lirakeke. Bestalde, urtarrila amaitzeko egun gutxi geratzen direnean ez da aldaketa askorik izan taldeen artean; Eibarri dagokionez, inor ez da etorri eta irteera bakarra dago, Pablo Herviasena, denboraldia amaitu arte Valladolidera itzuli dena lagata, Gaztela-Leongo taldeak gero fitxatzeko aukerarekin.

Emakumezkoen lehen taldeak, bere alde-tik, Alavesekin lidergoan berdinduta jarraitzen du 2. Maila Nazionaleko bere multzoan azken jardunaldian San Ignaciori 0-6 erraz irabazi eta gero. 2. B mailako Vitoria filialak baina berdindu zuen Tudelanorekin, bigarren berdinketa Ivan Fagoagak entrenatzaile kargua hartu zuenetik. Ohorezko Erregional Mailako Eibarrek igarri du entrenatzaile aldaketa (emaitzetan behintzat) eta, bigarren par-



Minutu gutxi izan ditu Herviasek Eibar FT-rekin.

tidua jarraian galduta, lider izateari laga dio. Harrobiko taldeei dagokienez, jubeniletako Ohorezko Maila Nazionalekoak 6. postuan jarraitzen du, maila bereko bigarren taldea laugarrena da Euskal Liga berrian, eta kadete mailako Euskal Ligan eibartarrak bigarren dira, Realarengatik bi puntura.

### Kuoten domizializazioa

Azken egunotan klubak abonatuaren kuotak domizializatu ditu, 2018koaren antzeko kopuruetan. 2020an abonatuaren fidelotasuna saritzeko asmoa du klubak.

## Eibar Energiako Urko Senperena garaile pistan

Azarotik hona Donostiako Antonio Elorza belodromoan jokatu den pistako proba bereganatu du Eibarko Klub Deportiboko taldearekin parte hartzen duen txirrindulariak. Bederatzi jardunalditan banatutako proban Senperenak nagusitasuna erakutsi du eta sailkapenean Aitor Larrañaga taldekideari hartu dio aurre seniorren maila nagusienean. Asteburuan jokatutako itxiera-jardunaldian parte-hartzaileek tempo eta puntuazio probei egin zieten aurre. Bioracer Sariaren ondoren, pistetako txirrindulariek Gipuzkoako txapelketa dute hurrengo erronka hilaren 27an, domeka honetan.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

Leganes - Eibar (bihar, 18:30)

#### Emakumezkoen 2. Maila

Eibar - Añorga (bihar, 18:00)

#### 2. B Maila

Izarra - Vitoria (etzi, 17:00)

#### Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Zarautz - Eibar (bihar, 15:30)

#### Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Allerru (etzi, 17:30)

#### 1. Erregionala

Ordizia - Urki (bihar, 18:30)

Eibartarrak - Aloña Mendi (bihar, 15:45)

#### JUBENILAK

#### Ohorezko Maila Nazionala

Eibar - Txantrea (etzi, 12:30)

#### Euskal Liga

Eibar B - Salvatierra (etzi, 15:00)

#### KADETEAK

#### Euskal Liga

Antiguoko - Eibar (bihar, 10:30)

### FOBALL-ZALETUA

Bar Areto - JMR Erreformak (bihar, 09:00)

Garajes Garcia - La Jara (bihar, 10:30)

Bar Txoko - Los Paisanos (bihar, 12:00)

Larrages Sporting - Chic (etzi, 09:00)

Slow XOK - Ipur Sagardotegia (etzi, 10:30)

Azkena Adahi - Feredu (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

#### 1. Nazional Maila

Anaitasuna - Somos Eibar (etzi, 12:00)

#### Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Eibar Eskubaloia - Egia (bihar, 16:30)

#### Gipuzkoako 1. Maila

Haritza - Aritzbatalde (bihar, 18:30)

### ERRUGBIA

#### Ohorezko B Maila

Avia Eibar - Getxo (bihar, 16:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Avia Eibar - Hernani (etzi, 10:30)

#### Euskal Erregionala

Elorrio - Avia Eibar B (etzi)

### SASKIBALOIA

#### Gipuzkoako 3. Maila

Avia Eibar - Chicano Bulls (bihar, 18:15)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

Claret Askartza - Urbat IKE (bihar, 09:30)

#### Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Leioa - Urbat IKE (bihar, 13:15)

### AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK**  
**ITZULTZEN DITUGU,**  
**euskaratik gaztelerara,**  
**gazteleratik euskarara,**  
**eta ingelesezik euskarara.**

**ZERBITZUA**  
**elkartea@etakitto.eus**

**PUBLI RESA**  
objeto publicitario

Armagin, 3-5 beheak

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

**publiresa@publiresa.com**    **943 701 497 / 615 799 419**



**UXUE IGARZA:** "Ahaztua ez izateko".

# Urte berria, erronka berriak!!!

**Aurten bai! Euskara praktikatzeko beharra edo nahia sentitzen baduzu edota euskal kulturara hurbildu nahi baduzu, primerako aukera daukazu BERBETAN edo ONGIETORRI egitasmoetan izena eman ez gero.**

**DOANeko programak dira. Jendea ezagutzeko, ondo pasatzeko eta euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko modu erraz eta dibertigarrian.**

## Zertan datza?

Oso erraza da. Euskara praktikatu nahi baduzu edo euskara praktikatu nahi duen besteren batekin jardun nahi baduzu, BERBETANen eman dezakezu izena. As-telehenetik ostiralera dauzkagu taldeak, goiz eta arratsalde, eta talde bakar batean edo baten baino gehiagotan eman dezakezu izena.

Talde horiek astean behin ordubete edota ordu eta erdi elkartzen dira, kafe baten inguruan edota pote batzuk hartzen, eta edozein gairen inguruan euskaraz jarduten dute, lagunartean egiten dugun bezala.

**Gurasoa bazara eta ume txikiak badi-tuzu**, zure aukera **TALDE NATURALA** izan daiteke, hau da, ohiko lagunekin eta



*Santa Eskea egingo dugu aurten ere otsailaren 4an.*

ohiko ordutegian, zure egunerokotasunean ordutegi eta ohitura aldetik aldaketarik egin gabe. Betikoa egiten TALDEAN eman dezakezu izena. Zuen konpromisoa taldean erabakiko duzue: umeekin parkean zaudeten bitartean astean egun batez, ostegunetako pintxo-potean, zapatu goizeko kafea hartzen duzutenean...

**Adin guztietako jendeak hartzen du parte. Gaur egun gero eta gazte eta gizonetzko gehiago ditugu taldeetan eta giro paregabea dago talde guztietan.**

**Euskara ulertzeko gai ez bazara**, baina euskarara eta euskal kulturara hurbildu nahi baduzu, **zure kultura ezagutzera eman nahi baduzu eta Eibarren elkarbizitza lantzea nahi baduzu**, zurea **ONGIETORRI** da. Eibarko auzo guztietan di-



tugu taldeak, astelehen arratsaldetan Urkin, astearte goizetan Urkizun eta asteazken arratsaldetan Amañan.

Berbetanen zein Ongietorri banaka zein taldeka izena eman ez gero hamaika ekin-tza osagarritan parte hartzeko aukera dago. Horietako asko familian egitekoak dira. Laster munduko janarien tailerra izango dugu eta Egiptoko janaria pretsatzen ikasiko dugu. Santa Eskean ere irtengo gara eta otsailean Txuri-Urdinera patinatzerara joango gara.

**Zatoz probatzera!!!**

elkartea@etakitto.eus - 943 20 09 18



*Munduko Janarien tailerra izango dugu urtarrilaren 29an Portalean.*



*Gurasoak Berbetaneko partaideek Txuri-Urdinera irteera egingo dute otsailaren 16an.*



**LANDER IGLESIAS**  
(antzerki zuzendaria)

## “Eszenatokian ez dago testu edo pertsonaia bat, magia joko bat baizik”

‘El hermano de Sancho’ antzezlanaren jasoko du gaur Coliseoak 20:30ean. Adituek antzerki-fantasia bezala definitu dute, jolas didaktikoa, eta bost aktorek (tartean, Nerea Ariznabarreta eibartarra) hogeit hamar pertsonaia baino gehiago taularatuko dituzte. Miguel de Cervantes eta William Shakespearen liburuetakoko pertsonaiak nahasten dira komedia aske honetan eta erdian Santxo Panzaren anaia dago, Francisco.

**- Santxoren anaiaren historia aurkeztuko diguzue Coliseoan. Ez genekien Santxo Panzak anaiarik zuenik. Nor da?**

Gure autoreak asmatu duen pertsonaia da. Francisco Panza du izena eta liburu batetik irteten da, baina berak ez daki pertsonaia bat dela. Istoria interesgarria, polita eta ezberdina dela uste dut, eta On Kixote Mantxakoa liburu eta William Shakespeareren liburu batzuetako pertsonaiekin egiten du topo espazio eszenikoan.

**- Zer gertatzen da pertsonaia horiekin?**

Literatura unibertsalaren pertsonaia handiak dira, baina denek daukate antzeko ezaugarri bat: pailazoak dira. Izan ere, Cervantes eta Shakespeareren garaian clown moduko antzerkia egiten zen, eta antzerki-jostailu hau sortu dugu mende honetan sasoi hartako antzerkia nolakoa zen erakusteko. Ikuskizun di-

bertigarria eta ondo landua lortu dugula pentsatzen dut. Aberastasun bisual garrantzitsua eta jantzi eleganteak ditu, eta hogeit hamar pertsonaiatik gora antzeztzen dituzten aktoreek festa batean bihurtzen dute antzeztan hau.

**- Antzeztan hau antzerki-fantasia dela aipatzen duzue. Zein zentzutan?**

Antzeztan honek bi ekarpen nagusi egiten dizkio antzerkigintzari. Batetik, fantasia. Eszenatokian ez dago testu edo pertsonaia bat bakarrik, magia joko bat baizik. Irudien bitartez islatzen duguna txundigarria eta bitxia da. Antzerkia oso gustoko ez duen publikoa erakartzen du lan honek, erabiltzen diren irudiekin antzeztanaren begien bitartez barneratzen duelako. Pelikulekin gertatzen den moduan, baina antzerkian. Eta bestetik, ikuskizun didaktikoa da eta antzerkiaren oinarriak erakusten ditu.

**- Bost aktorek hogeit hamar pertsonaia baino gehiago antzeztan dituztela esan duzu. Nola eragiten dute Francisco Panzarekin?**

Francisco Santxo anaiaren bila dabil eta bidean beste pertsonaiekin egiten du topo. Gauza ezberdinak ezagutzen dituen neurrian gauzak ikusteko eta ulertzeko modu bat garatzen du, pertsonaiekin informazioa ematen diotelako. Adibidez, bere anaia liburu batean bizi dela esaten diote, baina berak ezin du sinetsi, ez dakielako Santxo liburu bateko pertsonaia dela. Orduan, narratzaileak iradokitzen dio Francisco bera ere pertsonaia bat izan daitekeela. “Pertsonaia bat banaiz, kaka zaharra! Oso pertsonaia tristea naiz”, esaten du Franciscok. “Ezta gutxiago ere!”, erantzuten dio narratzaileak, “hobe pertsonaia bat izatea pertsona erreala baino”.



## Aukeratu dute aurtengo Aratosteak iragarriko dituen kartel irabazlea

Jose Ignacio Fernandez Iturmendi nafarraren “Paleta Zuloaga” izenburuko lanak irabazi du “2019ko Aratosteak Eibarren”, jaiak iragartzeko Eibarko Udalak antolatutako kartel lehiaketa. 11 eta 14 urte bitarteko mailan, irabazlea Amaia Basterrika izan da, “Eibarko Aratosteak” kartelarekin eta 10 urtera arteko mailan, berriz, saria Ixone Bilbaok eskuratu du, “Arkatz festa” izenburuko kartelarekin. Edizio honetan 75 lan aurkeztu dira lehiaketara.

## “Kalean otso etxean uso” kontakizuna, bihar umeen liburutegian

Bihar arratsaldean, 18:00etatik aurrera, “Kalean otso etxean uso”, 4 urtetik gorako umeentzat kontakizuna eskainiko dute Patata Tropikala Antzerki Laborategikoek umeen liburutegian. Ipuin honetako protagonistak Hiru Txerriak dira. Desagertu egin direla eta, susmagarri nagusia Otsoa da, baina, bien bitartean, Fernandez eta Fernandez gertatu dena ikertzen hasiko dira. Saioa Zapatuko Ipuina egitasmoaren baitan antolatu dute eta, betiko moduan, sarrera doan izango da.





## Sostoarekin santaeskean ibiltzeko entsegu irekia

Santa Ageda eguna gero eta gertuago dagoela eta, Sostoa abesbatza bezperan (otsailaren 4an) egingo duen kantu kalejira prestatzen hasita dago. Abesbatzarekin batera kantuan ibili nahi dutenentzat lehen entsegu irekia egin dute aste honetan eta datorren astean ere hala egingo dute, eguaztenean, 21:00etan Musika Eskolan (Portalean). Santa Ageda bezperako kalejira, berriz, 19:30ean hasiko da, Ego Gain kalean dagoen Kontent taberna paretik eta trikitilariak lagunduko diete. Hortik abiatuta, kalerik kale ibiliko dira, santaeske koplak abesten, Urkizura ailegatu arte.



## Euskal Jaia hilabete erdi aurreratuko da aurten

Ohikoa baino hilabete "zalapartatsuagoa" izango da aurten maiatza eta Eibarko Klub Deportiboko Kultura Batzordeak antolatzen duen Euskal Jaia bi astetan aurreratuko da. Ekitaldi nagusienak maiatzaren azken asteburuan egiten dira normalean, "baina Udalerako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak egingo dira domeka horretan eta, hori gutxi baliatuz, aurrekoan Eibar-Bartzelona partiduekin amaituko da 1. Mailako Liga". Hori dela-eta, maiatzaren 10-11-12ko asteburuak hartuko ditu 54. Euskal Jaiaren ekitaldi gehienak.

## Ederki ospatu zuten San Sebastian eguna Coliseoan

Aurreko domeka San Sebastian eguna zela ospatzeko, kontzertu berezia hartu zuen Coliseo antzokiak. Urteroko ohiturari jarraituta, Usartza txistulari taldeak, Molto Vivace metal boskotearekin eta Eibarko Danborradaren ordezkari talde batekin batera, Eibar, Donostia, Azpeitia eta beste herri batzuetako danborradetako piezak eskaini zituen eta, danbor hotsek animatuta, publikoak ere behin baino gehiagotan lagundu zien emanaldian.



## "Introspectiva" erakusketara bisita

Otsailaren 3ra arte egingo da ikusgai "Introspectiva", Jesus Maria Cormanen erakusketa Portalean. Artistak gaur arratsaldean, 19:30ean, bisita gidatua egingo du, erakusketari buruzko azalpenak bertatik bertara emateko.

## Kontzertua bertan behera

Azken orduko arazoak eraginda, Eibarko Musika Bandak domeka eguerdian Coliseo antzokian eman behar zuen kontzertua bertan behera laga behar izan dute. Dena dela, emanaldia aurrerago eskainiko dute, seguruenik otsailen.



## Opera proiektzioa Coliseoan

Bihar arratsaldean, 19:30ean, "Andrea Bocelli. Intimissimi on ice" opera ikuskizunaren proiektzioa eskainiko dute Coliseo antzokian, 2. aretoan. Version Digital Diferidos-en eskutik Veronako Arenan izotz gainean egindako ikuskizuna Damiano Michielettok zuzendu zuen eta 77 minutuko iraupena dauka. Sarrerak 9 euro balio du.

## Eibarko akuarelak Untzagan

Otsailaren 1ean inauguratuko dute Oscar Garcia Gisasolaren akuarela erakusketa Untzagako jubilatuetan, 19:15ean. Eibarko akuarelak otsailaren 17ra arte egingo dira ikusgai, astebarruan 19:30etik 21:30era eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

## Laskurainek saria ekarri du Bielorrusiatik bueltan

Aurreko aldizkarian aurreratu genuen moduan, Jose Miguel Laskurain Bielorrusiara bidaiatu zen aurreko astean, hango Irrati eta Telebistako Orkestra zuzentzeko eta pozarren bueltatu da etxera, sari eta guzti. Azaldu duenez, *"Bielorrusiara egindako bi-daia amaitzeko modu hobetik ez dago, lehen saria eman didate eta. Sariaren balioa bikoitza da gainera, orkestrak berak erabaki baitzuen saria neri ematea, isilpeko bozkaketa egin eta gero. Bestalde, bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet Gerardo Estrada maisuari eta Anastasia Zvezhinskayari, egindako antolakuntza lan bikainarengatik. 2020an berriz egingo dut kontzertua Bielorrusiako Irrati eta Telebistako Orkestrarekin, atsegin handiz".*



## Ikastaro eskaintza oparoa prestatu du UEUk

Udako Euskal Unibertsitateak prest dauka udaberriko eskaintza eta ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Datozen hilabeteetan on-line eta Eibarren emango dituzten ikastaroak

hauek dira: on-line eskaintzaren barruan, "Moodle-ren gamifikazioa eta ikasleak motibatuzeko sormenezko hainbat erabilera", "Nola hezi genero-berdintasunean eskolaren eremuan", "R software

askearen erabilera Natur Zientzietako estatistikan", "Lehen Hezkuntzako espazioen diseinua" eta "Adingabeak eta Internet: arriskuak eta nortasun digitala" ikastaroak emango dituzte; eta ikasgelako eskaintza osatzen duten ikastaroak, berriz, "Irudi bidezko laburpenak: pentsamendu bisuala laburtzeko tresna gisa", "Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna: zure produktibitatea hobetzeko metodoen oinarriak eta tresna digital lagungarriak", "Adimen emozionala eskolan", "Haur eta gazteen transexualitate ulertzeko gakoak" eta "Memoriatik sormenera" dira. Ikastaroen inguruko informazioa jasotzeko eta matrikula betetzeko ueu.eus helbidean sartu daiteke. Bestalde, gogoratu Eibarko Udalak diru-laguntzak ematen dituela.



## "Gutik Zura" dokumentala emango dute Topalekuan domekan

Domekara arte egongo da ikusgai "Basoen kudeaketarako proposamena, naturatik hurbil" izenburuko erakusketa Topalekuan. Oraingo honetan bisitan joateko ordutegia ohikoa baino malguagoa izango da, tabernako atetik erakusketa ikustera sartzeko aukera izango baita, taberna zabalik dagoen ordutegiaren barruan. Arrate Kultur Elkarteak, Kolore Guztietako Basoak elkartearekin lankidetzan antolatutako erakusketaren harira atzo hitzaldia egin zuten eta domeka arratsaldean, berriz, proiektzioa eskainiko dute: aurreko asteaz geroztik ikus daitekeen erakusketa agurtu baino lehen, 18:00etan, "Gutik Zura" dokumentala ikusteko aukera izango da, Topalekuan bertan. Jon Maiak zuzendu duen dokumentalaren oinarrian nekazal ingeniaria ez ezik irakaslea eta Tknikako egur arloko arduraduna den M<sup>o</sup> Jose Barriola Baraibarrek sortu, sustatu eta zuzendutako proiektua dago.



## Pirinioetako burdinaren ibilbidea Museoan ikusgai

Domekara arte egongo da "Pirinioetako burdinaren bideko ondare industrial" erakusketa Armagintzaren Museoan ikusteko aukera, gaur eta bihar 16:00etatik 20:00etara eta domekan, berriz, 10:00etatik 13:00etara. Erakusketa ibiltari honetan burdin eta siderurgiarekin erlazionatutako ondare industrialaren inguruko informazio ugari bildu dute, edozeinek erraz irakurri eta ulertzeko moduko paneletan. Andorrako Printzerria, Katalunia, Euskal Herria, Languedoc-Rosellon eta Akitaniako eskualdeetan industria horretako eremurik aipagarrienak jasotzen ditu erakusketak.



### Herrixa Dantzan 10 urte ELGETAN


Herrixa Dantzan ekitaldiak Elgetan hamar urte betetzen dituela-eta, domeka arratsaldean, 19:00etan hasita, Alboka taldeko Joxan Goikoetxeak saio berezia eskainiko du Espaloia kafe-antzokian. Zuzeneko musika horrekin dantzatzeko Patxi Montero izango dute gidari. Sarrera doan izango da eta, antolatzailerek diotenez, "urteurren borobilaren aitzakian, Alboka taldeko Joxan Goikoetxea soinu-jolea gonbidatu dugu, talde horren musika gehientsuen entzun dugunetakoa delako hamarkadako dantzaletan". Taldeak grabatutako abestietatik aukeraketa eginda antolatu dute dantzaletan berezia, tartean sokak, baltsak, mazurkak, jauziak, zortzikoak eta kontradantzak eskainiz.



### "El caserío" zarzuela gaur ELGOIBARREN

Donostiako konpainiak Jesus Guridiren lan handi hori eskainiko du gaur Herriko Antzokian, arratsaldeko 20:30ean hasiko den funtzioan. Sarrerak 15 eurotan daude salgai (8 euro Gazte Txartelarekin). Josean Garciak zuzentzen du lana eta orkestrak Arkaitz Mendozaren aginduetara jardungo du. Hainbat abeslari eta aktoreekin batera, Elgoibarko Haritz Dantza Taldeko partaideak ere izango dira gaurkoan. Abeslariaren arloan, Haizea Muñoz eta Klara Mendizabal sopranoak, Julio Morales tenoreak eta Santos Ariño baritonoak izango dute lan garrantzitsua.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## hildakoak

- Iñaki Larrañaga Korta. 92 urte. 2019-I-19.
- Jon Txurruka Atxa-Albizuri. 83 urte. 2019-I-19.
- Aurelia Gonzalez Villamandos. 94 urte. 2019-I-21.
- Ana Montejo Busto. 85 urte. 2019-I-22.
- Felisa Sanchez Garcia. 94 urte. 2019-I-23.

## jaiotakoak

- Diego Oracle Sonny Diassonama. 2019-I-18.
- Luka Garcia Zafra. 2019-I-19.

## farmaziak

- Barixakua 25  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Zapatua 26  
EGUNEZ Lokunberri (Isasi, 31)
- Domeka 27  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 28  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 29  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguaztena 30  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguena 31  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 1  
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI - 2019AN-  
 Zulueta (San Agustin, 5)

## SUDOKUA

### AURREKOAREN EMAITZA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 3 | 6 | 9 | 7 | 2 | 1 | 4 | 5 |
| 5 | 9 | 4 | 3 | 6 | 1 | 8 | 2 | 7 |
| 1 | 2 | 7 | 5 | 8 | 4 | 9 | 3 | 6 |
| 7 | 8 | 5 | 2 | 9 | 3 | 6 | 1 | 4 |
| 9 | 1 | 2 | 6 | 4 | 5 | 3 | 7 | 8 |
| 6 | 4 | 3 | 8 | 1 | 7 | 2 | 5 | 9 |
| 3 | 6 | 1 | 7 | 5 | 8 | 4 | 9 | 2 |
| 2 | 5 | 8 | 4 | 3 | 9 | 7 | 6 | 1 |
| 4 | 7 | 9 | 1 | 2 | 6 | 5 | 8 | 3 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 9 |   | 5 | 6 |   | 3 |   |   |
|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 2 |   |   |   | 8 |   | 9 | 4 | 5 |
| 1 |   | 7 | 4 |   |   |   | 3 |   |
| 9 |   |   |   |   |   |   |   | 6 |
|   | 8 |   |   |   | 5 | 7 |   | 4 |
| 4 | 2 | 5 |   | 3 |   |   |   | 7 |
|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|   |   | 3 |   | 4 | 1 |   | 2 |   |

## telefono

### jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdroia.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale
- Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

**Barixakua 25****IKASTEN**

**10:00.** Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

**11:00.** Jardiñetan. San Andres egoitzan.

**BATZARRA**

**17:00.** Urteko batzarra, bazkideentzat. Untzaga jubilatutako etxean.

**BISITA GIDATUA**

**19:30.** "Introspektiva" erakusketara bisita gidatua, Jesus Maria Corman artistaren eskutik. Portalean (erakusketa aretoan).

**ANTZERKIA**

**20:30.** "El hermano de Sancho" (Laurentzi Producciones). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

**Zapatua 26****ASANBLADA**

**11:00.** Bilera irekia, Greba Feministaren harira, M8 Plataformak deituta. Arrate Kultur Elkartearen.

**IKASTAROA**

**11:00.** Sanblasak egiten ikasteko ikastaroa, Arrate Kultur Elkartearen eskutik. Portalean (sukaldean).

**ASTELENA PARKEA**

**11:00/14:00 & 16:30/20:30.** 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30/19:30.** Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

**ZAPATUKO IPUINA**

**18:00.** "Kalean otso etxean uso", 4 urtetik gorako umeentzat kontakizuna, Patata Tropikala Antzerki Laborategiaren eskutik. Doan. Umeen liburutegian.

**ZINEA**

**18:00.** "Jurassic World 2" (13 urtetik gorakoentzat). Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

**Domeka 27****JARDUNALDI BENEFIKOA**

**12:00/18:00.** I. Jugger Jardunaldi Benefikoa, Katubeltz eta Marcan Huella animalien babeserako elkartearen alde. Unben (rugby zelaian)

**MUS TXAPELKETA**

**16:00.** EH-ko Mus Txapelketako Eibarko kanporaketa. Hirurok tabernan.

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30/19:30.** Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

**DOKUMENTALA**

**18:00.** "Gutik Zura" dokumentalaren proiektzioa. Topalekuan.

**Astelehena 28****IKASTEN**

**10:00.** Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

**ELKARRETARATZEA**

**12:00.** Jubilatutako eta pentsiodunen elkarretaratzera, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

**Martitzena 29****IKASTEN**

**10:00.** "Euskal Herriko mendien geologia" hitzaldia, Asier Hilarioren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

**IKASTEN**

**16:00/19:00.** Puntu-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

**JANARI-TAILERRA**

**18:30.** Munduko Janari Tailerra: Egipto. ...eta kitto!-ren eskutik, Ongietorri egitasmoaren baitan. Portalean (3. pisuan, sukaldean).

**GURASOAK MARTXAN**

**18:30.** "Eskola-familia: hezkuntza premia bereziak" ikastaroa, eskola adinean dauden haurren gurasoentzat. Portalean.

**Eguaztena 30****IKASTEN**

**10:00.** Luzatze ariketak. Biodantza ikastaroa. Portalean.

**TAILERRA**

**19:00.** Masa italiarren tailerra, Illunabarrian programaren barruan, "Ortutik ahora" elkartearen eskutik (toki guztiak bete dira). ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

**BATZARRA**

**19:00.** EH Bilduren udal taldearen batzar irekia. Gaiak: Legegintzaldiaren balorazioa eta alkatagai hautagaitzaren berrestea. Bilgunean (Bista Eder, 2).

**EIBARKO KANTUZALEAK**

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**SANTA AGEDA**

**21:00.** Santaeskerako entsegu irekia, Sostoa abesbatzarekin. Musika Eskolan.

**Eguena 31****IKASTEN**

**10:00.** "Gure herrietako hiri antolamendua" hitzaldia, Pilar Gonzaloren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

**KALEETAN KANTUZ**

**17:00.** Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteroen entsegua 18:00etan hasiko da). **19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**ODOL-EMATEA**

**18:30.** Odol-ematea, odol-emateentzat. Anbulatorioan.

**Erakusketak****Urtarrilaren 27ra arte:**

– "PIRINIOETAKO BURDINAREN BIDEKO ONDARE INDUSTRIALA" IBILTARIA (Armagintzaren Museoa)

– "BASOEN KUDEAKETARAKO PROPOSAMENA, NATURATIK HURBIL" (Topaleku)

**Otsailaren 3ra arte:**

– "INTROSPEKTIVA" JESUS MARIA CORMANEN IRUDIAK (Portalea)




**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, ION, eguaztenian urtiak bete zenduaz-en-eta. Besarkada eta musu haundi bat laguneren partez.



Zorionak, NAHIA, haraiñegun 7 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat aitaxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, XUHAR, bixar 4 urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Julene, Eukene eta Paulen partez.



Zorionak, ALBA, hillaren 30ian 10 urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, MARKEL!!!, hillaren 28xan 14 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zoriona, MAIALEN, hillaren 19xan 7 urte bete zenduaz-en-eta!! Patxo haundi bana etxekuen eta, batez be, Uxueren partez!!



Zorionak, JUNE, domekan 10 urte beteko dozuz-eta. Musu handi bat famelixaren partez.




Zorionak, URKO, hillaren 30ian 8 urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JOSU, 10 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez eta ondo-ondo ospatu.



Ongi etorri, ADRIAN, eta musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, SAIOA eta PABLO, hillaren 23an eta 29xan urtiak betetzen dozuz-eta. Musu bat famelixaren partez.



Zorionak, MARIA, gaur 5 urte betetzen dozuz-eta!!! Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Lolaren partez.



Zorionak, PAULE (8 urte bete zenduaz-en-eta) eta HAIZEA (9 egingo dozuz domekan). Aitxitxa Eduardo, amama Itziar eta famelixa guztiaren partetik.




## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**26an: 22:30** (2 Aretoa)  
**27an: 20:00**  
**28an: 20:30**

**"Atardecer"**

Zuzendaria: Laszlo Nemes



**(2 ARETOAN)**

**26an: 17:00, 19:45<sup>(1)</sup>, 22:30<sup>(1)</sup>**  
**27an: 17:00, 20:00**  
**28an: 20:30**

**"Gente que viene y bah"**

Zuzendaria: Patricia Font



**(ANTZOKIAN)**

**26an: 17:00<sup>(1)</sup>, 19,45, 22:30**  
**27an: 17:00<sup>(1)</sup> (Aretoa), 20:00**  
**28an: 20:30**

**"Creed II. La leyenda de Rocky"**

Zuzendaria: Steven Caple Jr.




**(ANTZOKIAN)**

**26an: 17:00**  
**27an: 17:00**

**"Stubby. Un héroe muy especial"**

Zuzendaria: Richard Lanni



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Iruñeko 26 urteko mutilak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Zonaldean egiten du lan. Tel. 666-386563.
- Emakume batek pisua edo 2 logela hartuko lituzke alokairuan. Tel. 680-691739.
- Pisua behar dut alokairuan Eibarren. Tel. 632-695273.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-489669.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-317670.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita etxer-etxe laguntzeko ere. Tel. 636-407923.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-906590.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-476921.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-574783.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-159373.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 686-212840.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 689-003537.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-587617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 633-205039.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-809926.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Jaurilaritzaren ziurtagiarekin Tel. 667-060292.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 722-562241.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-524180.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko eta pegorak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 642-467834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (etxeak, soziedadek). Tel. 680-526228.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-388279.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 650-629319.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-729476.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-921780.

- Gizonetza eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta pintore/igeltsero jarduteko. Tel. 612-358595.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-410561.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 693-960639.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Formakuntza eta esperientzia. Tel. 631-975260.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Ordu-tegi malgua. Formakuntza eta esperientzia. Tel. 606-906729.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-463096.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 607-312258.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 650-152866.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-793715.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 690-139485.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-737903.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653-667975.
- Mutila eskaintzen da igeltsero jarduteko eta baserriko lanak egiteko. Tel. 644-849206.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 631-795113.
- Neska eskaintzen da orduka lan egiteko: garbiketarako... Tel. 632-695273.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-230281.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Baita asteburuetan ere. Tel. 634-277037.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-798284.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-818388. Adele.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-330721. Flor.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-191490.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-314781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-215907.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 622-677230. Yose-lin.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 600-730447.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-240849.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-455923.

## 4.2. Langile bila

- Saltzailea behar da Eibarco denda batean. Bidali curriculum-a: EsEibar@hotmail.com
- Neska behar dugu 8 urteko umea arratsaldean zaintzeko. Tel. 675-006515. Manoli.
- Kamarera/o euskalduna behar dugu taberna baterako. Tel. 634-277015.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Selektibitateko klase partikularrak ematen dira. 3/4 lagunekin talde txikiak. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.2. Eman

- Txakurkumeak oparitzen dira. Tel. 667-942731.
- Katakumeak oparitzen dira. Tel. 628-502347.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

# gremioen gida



943-206776



## ANTENAK

### BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37  
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

## ELEKTRIZITATEA

### egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac  
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62  
630 95 73 45  
943 20 06 97

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50  
[www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

THELECER  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko  
urgentziak

610 532 922

## KRISTALAK

## ARKITEKTOAK

olatz etxeberría martinez ARKITEKTOA  
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberría

arkitektura, hirigintza eta peritazioak  
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea  
Tel/Fax 943 70 21 12 [www.arquitectura-ei.com](http://www.arquitectura-ei.com)



## ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS

ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA

E.I.T.

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 50  
AJT Zihurtasuna S.L.  
Barrena, 6 - behea ezk.

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

## AROTZAK

ulmar  
S.L.  
metalezko  
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 [www.ulmar.net](http://www.ulmar.net)

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

ESTUDIOS  
ARRILLAGA

PROIEKTUAK - ERREFORMAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA  
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-  
605 713 168 943 744 019

## PINTURAK

baglietto  
PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21 [www.bagliettoeibar.com](http://www.bagliettoeibar.com)  
Tel: 943 201 922 [bagliettoeibar@kaixo.com](mailto:bagliettoeibar@kaixo.com)

## GARBIKETAK

Limpieza  
Multiservicio  
Eibar

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082  
Mobila 688 609 171  
[www.multiservicioeibar.com](http://www.multiservicioeibar.com) Arragueta, 18-2.D

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com) 667 54 89 16

KOLORLAN  
PINTURA LANAK S.L.

MALVAR  
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396



**EIBAR BHI**  
ISASI, 37

**943 20 30 94**  
DBH 1 eta 2



**EIBAR BHI**  
ARRATE BIDE, 24

**943 70 22 89**  
DBH 3 eta 4



**EIBAR BHI**  
JARDINETA, 3

**943 20 83 49**  
DBH 3, 4 + Batxilergoak



**AMAÑA**

**688 68 72 89**



**ARRATEKO ANDRA MARI**

**943 20 72 35**



**J.A. MOGEL IKASTOLA**

**943 20 84 87**



**SAN ANDRES**

**943 20 79 95**



**URKIZU**

**943 12 17 78**

# Aurrematrikulak

**HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO  
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN**

**Urtarrilaren 28tik  
Otsailaren 8ra**

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

**2019-2020 IKASTURTEA**



**Aurrematrikula / Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra**

**ONLINE AURREMATRIKULA / [www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net)**

*Euskadi, auzolana*

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**